



Aritz JUANENEA

Profesionalen debuta
egin berri du Saldiasko
erremontelariak → 36

2013ko maiatzaren 30a | XXXIII. urtea | 591. zenbakia

Herrietako Egunak

Bertizarana / Xareta → 23-33

ETXALAR → 13

Gasna Feria Eguna
ospatuko da igandean

DONEZTEBE → 18

Errekaren Eguna antolatu
dute ekainaren 8rako

LEITZA → 26

Hiru izei bota dituzte
Izaieta natur inguruan

BAZTAN → 31

Hautetsien soldataren
berri eman du Udalak

UHOLDEAK BAZTANEN | Erratzu-Elizondo 1913



ekainaren 29an
aurkeztuko dute
Erratzun argazki
zaharrez osatu-
tako liburua eta
erakusketa

FÉLIX MENA MARTÍN
FOTO MENA ELIZONDO ©

Erratzun uholdeen mendeurrena ospatuko dute asteburu honetan

ERREPORTAJEA → 4-5



Duela 100 urte gertatutako tragedia ekarriko dute gogora ortziral arratsaldetik igandera (ikus xehetasunak 5. or). Hondamenik handienak Erratzun eragin zituen baina baita Elizondon ere. Garaiko kroniken arabera, hiru pertsona hil ziren Elizondon.

ARGAZKIA: FOTO MENA ELIZONDO ©

GIZARTEA → 22

Maiatzaren 30ean greba egitera deitu dute ELA, LAB eta EHNEK

Hiru manifestazio antolatu dituzte M-30erako: nagusia 12:30ean Donezteben eta arratsaldeko 6etan Elizondon eta Lesakan bana.

ZOKKETAK → 44



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora



Juanita LARRALDE | Arantzako eskolako irakaslea

«Eskolaren mendeurrenako bestan denok zerbait berezia sentituko dugu»

Ekitaldiz betetako eguna prestatu dute ekainaren 8rako. «Arantzatar guztien besta izanen da eta jendea animatzea nahi dugu» dio Juanitak.

ELKARRIZKETA → 3

LITERATURA OINARRI

Bisita gidatuak Elizondon

Zaindari ikusezina eleberriko inguruak bisitatuz bi ibilbide eskainiko dituzte aukeran. → 30

BAZTAN BIDASOAKO BIZI MODUEN IBILBIDEA

XXI. GASNA eta aRTISAUEN FERria

ETXALAR | ekainak 2 | 2013

Egun osoan:
Andremari
elkarteko
emakumeen
eskulan erakusketa
Eskola Zaharretan

Goizean:
Nekazal tresnen
erakusketa
Iriondoan



10:30
Artisauen erakusketa.
12:15
Herriko trikitilariak.
13:30
Gasna lehiaketako sari banaketa.
14:00
Herri bazkaria.
18:00
Herriko dantzarien saioa.



Antolatzailea

ALTXATA
Kultur Elkartea



Laguntzaileak



Nafarroako
Gobernua



berako
agenda

.net

ekaina



**SAN MIGUEL ZUBIAREN
INGURUKO SOLASALDIAK**



2 igandea
ANTZERKIA:
"Esperando a la inglesa" (Emitza antzerki taldea) · 18:30
Kultur Etxean · Sarrera: 3€ · Gaztelaniaz

7 ortzira
SOLASALDIA:
"Gerren ondorioak biztanleri zibilaren artean historian zehar"

FERNANDO MENDIOLA (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia eta Ekonomia Erakundearen Arloko irakaslea)
19:30 · Beralandetan

7 ortzira
Euskara Bortziritan GOGOETA PROZESUAREN EMAITZAK. Aurkezpena.
19:00 · Toki Onan · Antolatzailea: Bortziritako Euskara Mankomunitatea

5 asteazkena
UDAKO KONTZERTUA
17:30 · Kultur Etxean · Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

14 ortzira
SOLASALDIA: "Efectos de las guerras en Navarra a lo largo del siglo XIX" · **EDUARDO MARTINEZ LAKABE** (Historian doktore duna Nafarroako Unibertsitate Publikoan)
19:30 · Beralandetan · Gaztelaniaz

14-16 ortzira, larunbata, igandea
ALTZATEKO BESTAK
IGERILEKUAREN IREKIERA
ASTELEHENETIK IGANDERA 11:00tik 20:00tara
Bonuak egiteko: maiatzaren 30etik ekainaren 6ra arte (Kiroldegian); ekainaren 7tik aitzinera igerilekuan bertan. Bonua egitera joan aitzinetik kuota Caixabank-en sartu beharko da eta egiaztagiria eraman.
Ikastaroetako izen-ematea: lehor eta uretako jardueretara izena emateko kiroldegian ekainaren 10tik 21a arte

7 ortzira

21 ortzira
SOLASALDIA: "Askatzaile faltsuak, benetako borroak: emakumeen bortxaketa sistematikoak eta biztanleri zibilaren sarraskia Donostian 1813. urtean"

LOLA VALVERDE LAMSFUS (Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidean katedraduna) · 19:30 · Beralandetan

29 larunbata
BERA KANTARI
19:00 · Illekuetatik hasita
BAT-BATEKO ANTZERKI SAIOA:
"Casting, ya te llamaremos" (Improducciones)
20:00 · Kultur Etxean · Sarrera: 3€ · Gaztelaniaz



28 ortzira
SOLASALDIA: "Efectos de las guerras sobre la población de Bera y de Bortzirak a lo largo de la historia. 1813: el episodio más dramático"
FERNANDO MIKELARENA (Zaragoza Unibertsitateko irakasle titularra) · 19:30 · Beralandetan · Gaztelaniaz

Ekitaldien gainera informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoudala.net



Arantzako eskolak ehun urte beteko ditu aurretik, eta mendeurrena behar bezala ospatzeko, ekitaldiz betetako eguna prestatu dute ekainaren 8rako. Sorpresak ere izanen dira.

Juanita Larralde arantzarrak ongi ezagutzen du eskolaren martxa. 37 urte daramazki Arantzán irakasle, aitzinetik ikasle izan zen eta orduko «oroitzapen onak» dituela aitortu

digu. Eskolaren ibilbidea ezagutu eta ekainaren 8ko bestaren berri jasotzeko berekin solastu gara. Herritar eta eskolan ibilitako guztiei parte hartzeko gonbitea luzatu die.

Juanita LARRALDE | Arantzako eskolako irakaslea

«Eskolaren mendeurrenako bestan denok zerbait berezia sentituko dugu»

G. PIKABEA | ARANTZA

Nola sortu zen Arantzako eskola?

Oraingo eskola egiteko ideia Jadraque izeneko gizon batena izan zen. Nafarroako Gobernuko diputatua zen garai hartan eta eskola egiteko dirua lortu zuen. Eskola egiten hasi ziren, baina tartean, diputatu izateari utzi zion, eta eskola bukatu gabe dirua agortu zen. Gerora bukatu zen eskola, orain dela ehun urte. Orduan eskolan ibilitako batek kontatu didanez, bi gela ziren, neskena eta mutilena, eta 111 ume zeuden. Goiz-arratsalde aritzen ziren, baina bazkaltzera etxera joaten omen ziren. Larunbatean ere eskola izaten zuten eta arratsaldetan neskei laboreak erakusten zizkieten. Herrikoak eta baserrikoak nahiko bereziak zeuden, herritarrek goiz-arratsaldez egunero joaten baitziren eskolara, eta baserrikoak ahal zutenean. Gainera, baserriar aunitzek eskolak mundua galdu behar zuela pentsatzen omen zuten eta umeak ez zituzten eskolara bidaltzen. Dena erdaraz ematen zuten, baina ikasi deus ere ez. **Nolakoa zen zu ikasle zinenen eskola?**

Hiru gela zeuden, eta jantokia ere bai. 6 urterekin hasten zen eskolan eta 6-10 urteko neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. 10-14 urtekoak bana-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Juanita Larralde arantzarrak 37 urte daramatza Arantzán irakasle.

tu egiten zituzten, neskek batetik eta mutilak bertetik. Irakasleak gaztelera aritzen ziren, eta 14 urterekin *certificado de escolaridad* eman eta hemengoak horrekin bukatzen ziren. Gainerakoan, baserriar eta herritarren arteko aldea ez zen hain nabaria, jantokiarekin goiz-arratsalde baserrikoak ere etortzen hasi zirelako.

Bere garaian Arantzán ikastola ere izan zen...

Francoren diktaturako azken urteetan, ikuspegi desberdineko apezak etorri ziren: On Esteban, On Francisco, On Martín... Eskolan dena erdaraz, irakasle ezezagunekin eta Haur Hezkuntzarik gabe zela ikusita, On Francisco mugitzen hasi

GONBIDAPENA

«Herritarrek ilusio haundiarekin ari gara ekainaren 8ko besta prestatzen. Arantzán guztien besta izanen da eta jendea animatzea nahi dugu. Irakasle ohiak, ikasle ohiak, gazteak, haurrak, helduak eta zaharrak... Denak ongi etorriak izanen dira eta denak parte hartzera animatu nahi ditugu. Egun horretan, denok zerbait berezia sentituko dugu, gure bizipenak hor agertuko direlako. Egun osoko besta izanen da eta sorpresak ere izanen dira».

zen. Ordurako ikastolen mugimendua hasia zen eta Nafarroako Gobernuarekin solastuta, euskara sustatzeko laguntza tiki bat lortu zuen. Horrekin eta gurasoekin ordaindu zutenarekin sortu zen ikastola, 1976an. Haurrak 3 urterekin hasi ziren ikastolara eta orduan hasi nintzen irakasle. Urte horietan, egoera aldatu egin zen, irakasle euskaldunak bidaltzen hasi ziren eta ikastolak zereginik ez zuela eta, 1986an ikastola eta eskola elkarrekin egin ziren.

Zenbat urte dituzu irakasle lanean?

37 urte daramatza eta urteotan izan den aldaketa bistakoa da: helburuak eta hizkuntza aldatu dira,

zirkloak banatu dira, Bera-ra joateko adina aldatu da... 1973-1974 ikasturtean 7. eta 8. mailak egitera Berara joaten hasi ziren, baina bide txarra, hizkuntza arrotza eta haurrak ez zutela errenditzen ikusi zen, 12 urterekin goiz esnatu behar izaten baitzuten. Horrek porrota suposatzen zuen eta lana gogor eginez, 1987an 7. eta 8. mailak berriz Arantzán egitea lortu zen. Geroztik, Arantzán 14 urte arte egiten da. Aldaketa gehiago ere izan dira. Lehen dena tutoreak egin behar zuten eta orain espezialistak sartu dira, teknologia berriak ere bai, eta ratioak ere aldatu dira. Ni bakarrik 36 ikasleekin egondua naiz, eta orain hiru adineko 15 ikasleekin, banatu egiten dira. Zuzendariaren lana ere aldatu da, lehen aunitzetan etxean ari behar izaten zuten eta orain, liberatua dago. Horrez gain, lehen ez genuen logopedarik, ez orientatzailearik, ez laguntzailearik... Irakas-kuntza aldatu egin da, eta helburuak ere bai.

Gaur egun, zein da eskolaren egoera?

Egoera ona da. 60 ikasle eta 11 irakasle gara. Espazioa da falta zaiguna, baina dirudienez, eskola haunditzeko obrak bideratuak daude. Halere, lege berriarekin beldurtuak gaude, ni irakasle hasi nintzen garaiko eredura bideratua baitago.

HISTORIA → 1913KO UHOLDEAK

Ehun urte bete dira Baztan urpean utzi zuen uholde handia gertatu zenetik

Mendeurrena gogoratzeko ekitaldiak antolatu dituzte maiatzaren 31 eta ekainaren 1 eta 2an Erratzun

1913ko ekainaren 2an, Auza mendian bildutako ur erauntsia uholde bihurtu zen. Urak eraman zuen aitzinetik harrapatzen zuen guztia, hainbat herri urpean utziz. Erratzu izan zen kaltetuena, hildakorik egon ez

zen arren. Mendea pasata, denborak ez ditu ezabatu uharren aztarnak. Bizirik segitzen dute oraindik, parentan urak utzitako arrastoetan, baina batez ere, ahoz aho egun ilun hartaz kontatu diren istorioetan.



Eneritz IRAOLA

“Mendi, elizak eta etxiak bota zituen golan, len bistan zauden terreno asko tapatu ziran urpian...” azaldu zituen Txirrita bertso-lariak uholdeek utzitako ondorioak. Hondamenaren argazki hau errepikatzen zen eskualdean. Dena den, sinisgaitza dirudien arren orduko datuen arabera Elizondon hiru hildako besterik ez ziren izan. Horregatik, doaz eskutik hondamena eta ospakizuna 1913ko ekainaren 2az hitz egitean. Dena galdu arren, kontatzeko aukera izan zuelako gehiengoak. Urte aunitz pasa badira ere, gaur egun Baztango eltxetan kontatzen segitzen diren gertaerak.

UHARREN INDARRA

Egungo sargori eta hezea izan zen. Auza ingurua lainotuta ageritzen lehenengo orduetan, baina segidan kaxkoa beltzatu eta minu-

tu batean izugarriko erauntsia bota zuen. Goizeko zortzi eta erdiak ziren amesgaiztoa hasi zenean. Batzuen arabera, Auza eta Gorramendi mendietan eroritako urak lur jauziak sortu zituen. Handik Erratzuraino urez eta lo-

hiez osatutako animalako olatua iritsi zen. Bertze batzuen arabera, Erratzuko errekatik zubiraino, enbor eta zuhaitz aunitz ailegatu ziren zuloak estaliz. Orduko Erratzuko zubia hiru begikoa zen eta ez zen sobera altua. Ho-

rrek nolabait estutzen zuen erreka bidea eta hainbertze zaborrekin tapoi gisako bat suertatu omen zen. Halako batean, zubiak ez zuen jasan eta harri pila erraldoi bihurturik, urak eraman zuen. Herriko karriketan berehala hasi

DATUA

12

METROKO zabalera eta 5 metroko altuera hartu zuen uholdeak

1913KO UHOLDEEN INGURUKO LIBURUA OSATU DUTE

«Argazki hauetan biltzen den historia zatia jendearen eskura jarri nahi dugu orain»

Karrikak harriztarrez gainezka, desagertutako zubi eta etxeak... 1913ko uholdeetan Felix Menak ateratako zuri beltzeko argazkietan errepikatzen diren irudiak dira. Argazki hauek eta garai hartako prentsan argitaratutako berriak eta lekukotzak bilduta *Uholdeak Baztanen Erratzu Elizondo 1913* liburua osatu dute eta baita erakusketa ere. Erratzuko herria, Erratzuko San Pedro eliza eta Elizondoko Mena Argazkilariak elkarlanean aritu dira eta maiatzaren 29an eginen dute jendaurreko aurkezpena. Liburua salgai jarriko dute 20 euroren truke erakusketan eta Mena argazki-dendan. Itziar Menak azaldu digunez, beraien artxiboko irudiak liburu batean biltzen dituzten estreineko aldia da eta «argazki hauetan biltzen den historia zatia jendearen eskura jarri nahi» dutelako hartu dute erabakia. Eta emaitza ikusita, etorkizunean «bertze libururen bat argitaratzeko asmoa» ere badu-



Erakusketan eta Elizondoko Mena argazki-dendan jarriko dute salgai liburua 20 eurotan.



ARGAZKIAK: © FOTO MENA ELIZONDO
Etxeak suntsituta, abereak itofa, zubiak deseginda... uraren indarra izugarria izan zen, hondamena atzean utzi.

zen ura goratzen eta erreka gainezka etortzen. Gertatutakoa baina hala bestea izan, hildakorik ez zen izan, karabineroek tiroka abisatzeko astia izan zuten zende gehienak Aduanaren edo etxeetako sabaietan babesteko aukera izan zuelako. Horrek ez zuen ordea, une larriak bizitzea saihasitu.

USTEKABEAK

Herriko ostatua, erreka bazterrean dagoena, bat-batean uholdeak hartu zuen. Bertan bizi zirenak, sabaira igota zeuden bizilagunen antzera, baina urak gorantz egiten zuela ikusita, zapi batzuekin ingurukoak agurtzen hasi ziren. "Hurrengo bizitzara arte, adio" esaten zieten, ez zutelako uste bizirik irteango zirenik. Patua alde izan eta ez zituen urak irentsi ordea. Ez zuten zorte bera izan Erratzuko 12 etxek, elizaren aldre

bi, eraikin eta karriketan ikusten zen hondamenez gain, landak harriz bete ziren,azienda gehiena ito zen eta uholdeak eraman zituen belai osoak. Egoera makurragoa bihurtu zuen horrek, nekazaritza baitzen herriko diru iturria bakarra.

HUTSETIK HASTERA

Uholdeen inguruko berria zabaldu zenean, laguntza toki guztietatik iritsi zen. Aberatsek jarri zuten dirua, jende xeheak berriz beren eskulana. Denbora luzea behar izan zuten, urak suntsitutakoa berreraikitzeke. Baina are denbora gehiago behar izan zuten, beren buruetatik ikaralendu ahal izateko.

Oroimenetik ezabaztea berriz, ia inork ez zuela lortu erran liteke. Hala erakutsi dute ehun urtean belaunaldiz belaunaldi kontatu diren istorioek. Gertakari bera ehunka begiz ikusia, ehunka belariz aditua. Ehun urte ondotik, ekainaren 2ko uholdea atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzeko aukera ematen digutenak.

nagusiak eta sakristiak, denak desagertu baitziren. Izpegiko errepi-dea desagertu zen eta zubiak ere urak irentsi zituzenez, herria inkomunikatuta geratu zen.

Kalteak berehala gertatu ziren agerian. Zu-

MEDEURENEKO EKITALDIK ERRATZUN

MAIATZAK 31, ortzirala

18:00 Begirada atzera Begira, Baztango uholdea erakusketaren irekiera apezetxean.

21:00 Patxi Saizen kontzertua elizan.

EKAINAK 1, larunbata

08:30 Mendi martxa Auzara. Orain dela 100 urte kazetariak egindako ibilbidea egiteko. Plazatik abiatuta.

11:00 Haurrendako jolasak eta Txirla beltzaren piratak karrika antzerkia, Begira konpainiaren eskutik. Pilotalekutik hasita.

16:00 Pilota finalak (Erratzuko emaztekiek frontenisa eta gizonezkoen pala)

Iluntzean, Prozesioa Gorostapolotik Erratzura, La Dolorosa Amabirjinarekin.

20:00 Elizondoko abesbatzaren kontzertua elizan.

*Erakusketa zabalik:

11:00-14:00 eta 18:00-20:00

EKAINAK 2, igandea

08:30 Ezkil jotzea uholdea hasi zen unea gogoratzeko.

11:30 Meza eta herriaren bedeinkapena plazan.

13:30 Baigorriko dantzarien saioa *Uraren gain* emanaldia.

Bazkal aurretik Musika-poteoa. Fanfarronak eta bertsolariak alaiturik.

14:30 Herri bazkaria frontoian.

Arratsaldean Dantzaldia.

*Erakusketa zabalik:

11:00-14:00 eta 18:00-20:00

ERRATZUKO UHOLDEEN 100. URTEURRENEKO LANTALDEA

«Erratzuko etxe guztietan entzun izan da uholdeen inguruko istorioren bat, herrian arrasto sakona utzi zuen gertakaria da»

Mendeurrenak ospakizun handien sinonimo izan ohi dira eta Erratzun hitzez hitz beteko dute. Herriko eragile desberdinek Erratzuko uholdeen 100. urteurreneko lantaldea osatu dute eta abendua ezkeroztik ari dira buru belarri lanean. Hamaika bileren fruitua dira liburua, erakusketa eta asteburu osoko egitaraua. Mendeurrenari «merezki duen garrantzia» eman nahi izan diotela aipatu dute taldeekideek, izan ere «Erratzuko etxe guztietan entzun izan da uholdeen inguruko istorioren bat, herrian arrasto sakona utzi zuen gertakaria da». Informazio aunitz bildu dute denbora tarte honetan, eta horren zati handi bat *Begirada atzera Begira, Baztango uholdea* izeneko erakusketan, Erratzuko apezetxean egonen da ikusgai. Horretaz gain, adin guztietako herritar eta kanpotarrei zuzendutako



Erratzuko uholdeen 100. urteurreneko lantaldea.

ekitaldiak prestatu dituzte «memoria dantzan jarri eta besta eginaz, ongi pasatzeko egitaraua» antolatuta nahi izan dute.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Mixeria uholdeak

1 913ko ekainaren 2an uholde handia izan zen Baztanen. Hodei bat lehertu eta alimaleko ur jasa ekarri omen zuen, erreka hazi eta bere bidean harrapatutako guzia bereganatu.

Gure xaharrek kontatutakoa ez genuen bizi izan. Bertze historia eta mixeria aunitz bezalaxe. Guk ez genuen halako uholderik pairatu, ez genuen mixeriarik, goseterik pasatu izan.

Dena den, orain, data lazgarri haren mendeurrena betetzen den honetan, mixeria eta gosteak ate joka ditugu. Orduko hodei leherketaren orde, higiezinen hodeia lehertu da, eta berarekin batera, inguruko bertze hainbat hodei ere lehertzen ari dira, mixeria uholdea eraginez.

1913ko gertaera hori gogoratzeke plaka bat dago Elizondoko Jaime Urrutia karrikan. Beharbada orain ere bertze plaka bat jarri beharko dugu: "honaino ailegatu ziren gure mixeriak".

«Orain, data lazgarri haren mendeurrena betetzen den honetan, mixeria eta gosteak ate joka ditugu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Bertzearen lekuan jarri

Bizikletan noanean oartzten naiz zein abiaduran pasatzen zaizkigun ondotik kamioiak eta kamioia gidatzen dudanean oartzten naiz zer traba egiten duen bizikletak. Kamioi gidari txirindulazale batek errandakoa. Ez al da hori arlo gehienetan gertatzen zaiguna, ez dakigula bertzearen lekuan jartzten? Kasu honetan, halere, ez dut ezagutzen kamioi gidaria hil duen bizikletarik.

Nabarmentzekoak



Modesta HUARTE
100 urte betetako beratarra

1913ko maiatzaren 17an jaio zen Agerrako Huarte etxean eta mende bat berandua go familiarekin batera ospatu du 100. urtebetetzea, Zalaingo Kamiguan. Zorionak!



Aritz JUANENEA
Saldiasako erremontelaria


Ttikitatik esku pilotan aritu ondotik duela urtebete hartu zuen erremontea aurrelariak, Urrutia herritarren aholkua segituz. Maiatzaren 25ean debuta egin du profesioletan.



Patxi BALDA
Ehun aldiz odol-emaile

50 aldiz baino gehiagotan odola eman dutenak omendu zituzten maiatzaren 17an Beran. Berara ezkondu Patxi Baldak ehun aldiz eman du eta domina eta oroirgarria jaso zuen.

Atzera begira → 2001.05.31 / TTIPI-TTAPA 350 zbk.



Bertizaranako Eguna antolatu zen lehen aldiz duela 12 urte

«Oraingo belaunaldiko gazteak arras ongi konpontzen gara eta hori probexu nahi dugu». Hala aipatu zigen Joxean Subizarek duela hamabi urte, lehenbiziko aldiz Bertizaranako Eguna antolatzen hasi zirenean. Inguruko bailaren itzaletik ateratzeko asmoa ere bazuten: «Beti erran ohi da Baztan-Bidasoa edo Baztan, Malerreka eta Bortzirriak. Aunitzek uste dute Bertizarana bera Baztan dela. Bertizaranatik salto egiten dute. Bertzeak bertze horretarako antolatzen da besta, hiru kontzejuz osatutako bailara garelako errateko: Oiiregi, NARBATE eta Legasa» aipatu zigen antolatzaileak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Iruñerri eta Erreniega inguru horretan

Juainas PAUL ARZAK

Martxoaren 13an agertu ziren Berrian Edurne Elizondok idatzitako pare bat lan. Esako urtegiaren arriskua zuten gaia. Aitzinetik eta gibeletik, Esakoari bezala Itoizko urtegiari eman dizkio Edurnek bere onenatarikoak. Orduko hartan, ordea, *Eskas aritu dira* izenburuko analisi-zutabe-an, niri izua pizten zidaten pasarteak, lekukotasunak zeuden. Hainbat parlamentarien jarrera arina aipatu zuen. Zehazki, PPNko Eloy Villanuevaren txantxak, UPNko Marivi Castilloren arduragabeke-riak eta PSNko Maite Esporrinek lanak fidagarritzat jotzea. Guztiak Parlamentuko aktetan agertuko di-rela espero dut.

Esako lurak, magalak, mugitu badira ere, Itoizen lurrikarak egon diren bezala, dena ongi dela esaten zutenek eurenarekin segitzen zuten eta du-te, ziur aski. «Ez dela deus gertatuko» bota lasai eta segi... «Bat-zordeko presidentea, egunkaria irakurtzen. Hainbat parlamentari, sakelekoari so. Atera eta sartu ari dira ber-tze zenbait». «Gu bizi garen tokian biziko ba-zinate...» salatu omen zuen Zangozan bizi den Iker Aramendiak.

Baina ez dira han bizi.

Hori bakarrik ez. Hobe sekulan ez gertatzea baina, gertatuko balitz? Mehatxua egia bilakatuko balitz, zein izanen zen politiko horien ardura? Zein Ebroko Konfederaziotik eta Nafarroako Gobernutik Antonio Casas geologoaren beldur zientifikoei irri egin dietenen erantzukizuna? Noiz eta aurren, hain zu-zen ere, Iruñerri eta Erreniega inguru horretan urak lurrikarak sortzeko gaitasuna duela aski garbi era-kutsi duenean; han-hemenka, lurjausi ugariak ikusi ditugun urtean. A zer ikuskizuna Miranda Argara ze-raman errepidearena... eta Belatekoa? Zenbatga-rena? Hara, nire oroimen lausotuarekin ez sobera fidatu baina, esango nuke –hemerotekara jo– lanak egin zirenean Barcina zela Ingurumen Departamen-tuko arduraduna eta, kasualitatez, orduan zuen se-narra-edo tunelen tekniko zela... Harira.

Agintari eta politikoen ardura kriminala dago? Bar-kaezina? Aktena horregatik esaten dut. Horietan, Edurnek salatutako giroa ez da agertuko, bai ego-nen direla idatzirik, uste dut, batzuen alderdikeria interesatuaren testigantzak, hitzak, argudio eska-sak... Bizitza osoan ardura izanen dute? Gizadia-ren kontrako krimenak ez dute barka eperik. Eta no-la epaitu, horrela ez bada, gizadiaren kontrako on-dorio latzak sortzen dituen?

Mehatxua egia bilakatuko balitz, zein izanen zen politiko horien ardura? Zein Ebroko Konfederaziotik eta Nafarroako Gobernutik Antonio Casas geologoaren beldur zientifikoei irri egin dietenen erantzukizuna?»

Aberasteko eskubidea

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Somos ceros a la izquierda, somos ceros para la derecha'. Horixe abesten du Madrilgo Habeas Corpus taldeak. Zeroak gara eskuinarentzat. Hori argi ez zuenari, azken urteotan gertatzen ari denak ar-giago utzi beharko lioke. Langabeziako ilarak luzatzen, industria, ekonomia egonkor baten egiazko motorra, pixkanaka itzaltzen –eta Nafarroan, kasualitatea, ingu-rune euskaldunenetan–, eta Estatua, guztion ongizatea zaindu behar duen erakundea omen dena, orain arte eman dituen papurrak kentzen, gehiegi gastatzen omen du-eta baliabide guttien dituzten herritarrengan. Hori dena egin du eskuinak. Baina ez eskuina sigla zehatz batzuk bezala bakarrik ulertuta, horren gainetik baita-go; eskuina sistema bera da, 'demokrazia' deitzen dio-ten hau. Siglak matiz edo ñabardurak bertzerik ez dira. Izan ere, homosexualen ezkontzak onartu edo ez, abor-tua legeztatu edo ez, eta halako ñabardurak alde bate-ra utzita, sistema hau printzipio batean oinarritzen da:

aberats izateko (ustezko) es-kubidean. Eta, eskubidea izan arren, oraingoz behin-tzat ez dago guztiok aberats eginen gaituen formularik. Eta zer du ba txarra aberats izateak? Dirua eta jabetzak pilatu, enpresa eta enporio handiak sortu. Soilik listoe-nak, bizkorrenak dira horre-tarako kapaz. Eta ez kexatu, jende umilak ere egin baite-zake mereziz gero. Koma Iru-ñeko taldeak ederki azaldu zigun: 'Declara a quien le escuche que sus posesio-

«Homosexualen ezkontzak onartu edo ez, abortua legeztatu edo ez, eta halako ñabardurak alde batera utzita, sistema hau printzipio batean oinarritzen da: aberats izateko (ustezko) eskubidean»

nes las empezó a ganar recogiendo cartones'. Rocke-feller bezala. 'Emprendedor'. Onenak gehiago du, me-rezi duelako. Edo hala omen. Izan ere, nola elkartzen da hori demokrazia batean bizi garen diskurtsoarekin? Poli-tikan zer berdintasun existitu liteke herri baten, esku-alde baten edo nazio oso baten baliabide ekonomiko-ak kontrolatzen dituen pertsona batek edo batzuek abe-rastasuna bertze norabait eramatearekin mehatxatzen badute, herriak hautatutako ordezkari batzuek horren banaketan esku sartzeko asmoa dutelako? Zer berdin-tasun egon liteke gutti batzuek gehienak pobrezia kon-denatzeko ahalmena dutenean? Ekonomiari kontrola paratu nahi izatea, ekonomiaren gestio publikoa ezar-tzea historian jada egin dela erraten digute, eta zehazki 1989an porrot egin zuela. "Historia bukatu da", aldarri-katu zuen Francis Fukuyama pentsalari neoliberal esta-tubatuarrak. Komunistak ziren Estatuetan ere 'demokra-zia' ezarri zen. Aberats izateko eskubidea lortu zuten haiek ere, guk bezala, eta begira zein ongi joan zaigun guztioi. Baina Habeas Corpusek abisatu zuen: 'Hostia que nos dieron, hostia que devolveremos!'.

Irakurleak mintzo

Txistulari
Eguneko
antolatzaileek
esker onez

Anabel ARBURUA (Etxalar-
ko txistularien izenean)

Balio dezatela ondo-
rengo lerro hauek, Etxa-
larren ospatu berri du-
gun Txistulari Egunaren
antolaketan lagundu di-
guzuenei eskerrak emate-
teko.

Etxalarko Udala, usa-
zaleak, Puy eta Leire (ar-



tistak!!), Errege, Gotzon,
Elutsa eta La Basque
ostatuak, Riki... Eta ba-

tez ere MILA ESKER
Euskal Herriko hainbat
txokotatik egun eder


hau ospatzera hurbildu
zineten txistulari guztiei.
Plazerra izan da.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**



Uda honetan...

learning languages
hizkuntzak ikasi



➔ IKASTAROAK HEMEN

Ikastaroak **Acorn Languages**en bertan, zuregandik hurbil, zure ikasketak udako agendan sar ditzazun. **Helduentzako, gaztetxoentzako eta haurrentzako** ikastaro trinkoak: alemana, frantsesa eta ingelesa.

➔ IKASTAROAK MINTZATZEN DEN TOKIAN

8 hizkuntza, mundu osoan zehar 30 helmuga baino gehiago, uda hizkuntza-esperientzia paregabea biziz aprobeitza dezazun.

➔ IKASTAROAK NAHI DUZUNEAN ETA NAHI DUZUN TOKIAN

Online ikastaroak, zoazen tokira zoazela ikastaroa zurekin eraman ahal izateko. Tutorizatutako eskolak eta bideokonferentziak; bermatu egiten dizugu ikasiko duzula.

Koskontako bidea, 11, behea LESAKA 948 637 135
www.acornlanguages.com

 **acQrn**
Quality Language Learning

Prentsatik bildutakoak



«Ni naiz gauero nire buruarekin lotara sartu eta bakean lo hartu behar duena. Zoritxarrez bizitzak makilkadak ematean ikasten duzu gehien. Haur bat ezezkoarekin hezten da, ez baiezkoarekin. Horregatik, positiboa positiboa izan da niretzat, eta ordaindu dudana txirindularitzarako onuragarria izatea nahiko nuke».

Patxi VILA

Berako txirindulari ohia
ARGIA 2013.05.19



«Orain aldagelan sartzean beteranoena naiz. Baina tira, kantxak jartzen zaitu zure tokian eta nortasun agiria aldagelan gelditzen da. Izan zaitezke beteranoago, gazteago, baina ondo jokatzen duenak ondo dagoelako jokatzen du, eta gaizki jokatzen duenak, gaizki dagoelako. Adinari ez diot buelta handirik ematen».

Abel BARRIOLA

Leitzako pilotaria
BERRIA 2013.05.23

11 galdera labur

Nor dugu Mainer Atxa?

Almandozko 26 urteko neska.

Zein zaletasun dituzu?

Musika, lagunekin egotea, eskulanak...

Peruko Alcomayo herri ttikira ura eramán diezu. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia ikaragarria izan da, errepikatze modukoa, eta %100 gomendagarria. Jende, toki eta ohitura diferenteak ikusi eta eza-gutu ditut.

Zerk eman dizu atentzio haundiena Perun?

Jendearen lasaitasunak eta zein pozik bizi diren

badutenarekin, nahiz eta berrikuntzekin pozik gelditzen diren.

Nolakoak dira peruarrek?

Arras hurbilekoak, badutena gurekin konpartitu dute haien etxetan egon garen bitartean.

Ikasketak bukatuta. Orain zein asmo dituzu?

Asmoa lana aurkitzea da, lortzea bertze gauza bat izanen da!

Almandozko bestetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lagun eta familia arteko otorduak.

Zer du Almandozek Baztango bertze herriek ez dutena?

Herri bakoitzak badu bere xarma bertakoendako.

Zer du Baztanek soberan eta zer faltan?

Faltan, lanpostuak; Sobran, hezetasuna! Baina hori Baztanen parte da!

Besta egiteko toki bat?

Elizondo.

Amets bat?

Momentu honetan, ikasitakoarekin zerikusia duen lan bat aurkitzea. Etorkizunean, nire bigarren herri bihurtu den Peruko herri-
ra bueltatzea.



Mainer ATXA → Almandozko gaztea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

DISEINUA HARITZEAN · RUSTIKOA
TELLERIA
Kallitatezko altzarien 700 m²ko erakustokia prezio interesgarriekin
• Neurriera eginak
• %100 Haritz Trinkoa
• Enpotratuak
• Sukaldeak
• Txokoak
IZUGARRIZKO ESKAINTZAK
BERRIPLANO (Nafarroa) · Tel. 948 30 35 04 · 699 43 30 87 · www.mueblestelleria.com

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
iturgintza · gasa
kalefakzioa
Tfnoa: 629449602 · BERA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

GIZARTEA

BERTSOLARITZA → MAIATZAREN 11N

Nafarroako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten Donezteben

14 urte arteko Eskolarteko Bertsolari txapelketan Leitzako taldea izan zen garaile

TTIPI-TTAPA

Bertso Eskoletan dabilzan 14 urte arteko Nafarroa osoko gaztetxoek maiatzaren 11n ospatu zuten Nafarroako Bertso Eskolen Eguna. Doneztebeko zinema aretoak 80 gazte bildu zituen, besteak beste, Lesaka, Arantza, Igantzi, Doneztebe, Sunbilla, Baztan, Leitza, Altsasu, Iruñea, Barañain, Berriozar, An-

tsoain eta Atarrabiatik etorritakoak. Bertsoaren inguruan elkar eza-gutzeko eta ikasturteari amaiera emateko festa izan zen larunbatekoa.

Goizean lehenik, 14 urte artekoen Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu zen. 15 taldetan bilduta, guztiek parte-hartzeko aukera izan zuten. Azkenean, Joanes Ilarregik, Xabat Ilarregik eta Oihel Altzelaik osatutako Leitzako taldeak lortu zuen lehen postua eta beraz, datorren ekainaren 22an Orion jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan Nafarroako ordezkari izango dira.



ARGAZKIAK: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertso Eskolen Egunean parte hartu zuten ikasleak goitian eta 14 urte arteko txapelketa irabazi zuen Leitzako taldea (Joanes eta Xabat Ilarregi anaiak eta Oihel Altzelai) behituan.

BERTSOPAPER LEHIAKETA

Nafarroako Bertso-paper Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zen ondotik. Bertso Eskoletako kideek parte hartu dute eta ondokoak izan dira sarituak: LH

3-4.mailan Lesakako Orti Arotzena Portu, LH 5-6.mailan Berako Ekhiñe Zapiain Arlegi, DBH 1-2.mailan Leitzako Joanes Ilarregi Marzol eta Batxilergoan Barañaingo Mikel Lasarte. Arratsaldean, gazte-

ek prestatutako gai eta ariketekin Xabier Silveira eta Julen Zelaieta bertsolariekin bertso-saioa egin zen.

Ikasleen partaidetza handia izan zuen saio honekin amaitu zen festa eguna.

2013 Udako aktibitate berriak

AKTIBITATE FAMILIARRA
Kirola egin eta ongi pasatu familian!
Uztailan

UDAKO KLUBA
4-12 urteko haurrentzat
Ekainaren 17tik abuztuaren 30era

Informazioa eta xehetasunak:
BERA: 948 630 215 telefonoan edo bera@urdisl.com
LESAKA: 948 637 400 telefonoan edo lesaka@urdisl.com

Urdisl Bera Urdisl Lesaka

Frutas y Verduras
FRANDONEA, S.L.
FRUGAK ESA BARAZKIAK

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

sarobe®
gozotegia okindegia

pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

GIZARTEA → 200. URTEURRENA DELA ETA

San Migel zubiari buruzko hitzaldiak eskainiko dira ekaineko ortziraletan

Beralandetan izanen dira solasaldiak 19:30ean

TTIPI-TTAPA

Aurten 200 urte bete teko dira San Migel zubiko gudaz eta horren inguruan hainbat ekitaldi antolatzen ari dira. Zubia bera auzolanean egokitu da eta ekaineko ortziral guzietan San Migel zubiaren inguruko solasaldiak egingen dira, 19:30ean Beralandetan.

Lehenbizikoa ekainaren 7an izanen da eta *Gerren ondorioak biztanleri zibilaren artean historian zehar hitzaldia eskainiko du* Fernando Mendiola, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia eta Ekonomia Erakundearen Arloko irakasleak.

Ekainaren 14an, *Efectos de la guerra en Navarra a lo largo del siglo XIX* solasaldia eskainiko du Eduardo Martínez Lakabe historia katedradunak Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Ekainaren 21ean, *Askatzaile faltsuak, benetak borrokoak: emakumeen bortxaketa sistematikoak eta biztanleri zibilaren sarraskia Donostian 1813 urtean so-*

lasaldia emanen du Lola Valverde Lamsfus, Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaiak katedradunak.

Ekainaren 28an, azkenik, *Efectos de las guerras sobre la población de Bera y de Bortzirriak a lo largo de la historia. 1813: el episodio más dramático* solasaldia eskainiko du Fernando Mikelarenak, Zaragozako Unibertsitateko irakasle titularrak.

Emaitza taldearen antzezlanaren igandean

Emaitza antzerki taldearen *Esperando a la inglesa* antzezlanaren ikusgai izanen da ekainaren 2an, igande arratsaldeko 6:30ean Kultur Etxean. Sarrera 3 euro ordaindu beharko da.

Igerilekua ekainaren 7an zabalduko da

Ekainaren 7an, ortziralarekin irekiko da udal igerilekua. Asteleheneetik igandera 11:00etatik 20:00etara egonen da zabalik.

Maiatzaren 30etik ekainaren 6ra arte kiroldegian egin daitezke bonuak eta ekainaren 7tik aitzinera igerilekuan bertan. Bonua egitera joan aitzinetik kuota Caixabank-en sartu beharko



UTZITAKO ARGAZKIA

100 urte bete ditu Modesta Huartek

1913ko maiatzaren 17an sortu zen Modesta Huarte Iñarga Agerrako Huarte etxean. Mende bat beranduago etxe hori desagertua dago, baina 100 urte bete ditu Modestak eta ederki ospatu zuen Zalaingo Kamigua etxean, Paquito seme bakarrarekin, Mari Carmen Otamendi errainarekin, Francisco Javier bilobarekin, Elisa honen emaztearekin eta Leire eta Amaia birbilobekin. Berako Udalaren izenean, Marisol Taberna alkateak eta Isidora Agirre zinegotziak lore-xorta eta oroigarriak eman zizkieten. Biharamonean Ibardingo sagardotegian elkartu ziren, familia handiarekin. Modesta, hamar senideren artean gazteena zen. Hiru neska eta 7 mutiko izan ziren eta bi mutilek Argentinara joan behar izan zuten. 25 urterekin Patricio Iriarterekin ezkondu zen Modesta eta Funvera pareko kantinan bizitu eta aritu zen lanean. Mende honetan hainbat lanetan aritua da Modesta, ostatuan, labrantzan, surtidorean, kontrabandoan, jostun... Bere bizipenak laburbiltzeko aipatu digunez, «orduan lan egiteko bizitzaren ginen, ez orain bezala, orain bizitzeko lan egiten da».



UTZITAKO ARGAZKIA

Odol emaitzatzat dominak

50 aldiz odola eman duten herriko eta inguruko odol-emaitzatzat dominak eman zizkieten maiatzaren 17an Kultur Etxean. Aipamen berezia merezi dute 80 aldiz odola eman duen Victorino Cabo irundarrak eta dagoeneko ehun aldiz eman duen Patxi Baldak. Mariatxo Huartemendia Berako ordezkariak eta Adonako Juan Maria Mas presidentek eta Javier Boneta presidente ordeak eskerrak eman zizkieten denei, nahiz eta batzuk ezin izan zuten ekitaldira azaldu.

da eta egiaztagiria eraman. Ikastaroetako izen-ematea: lehor eta uretako jarduetarako izena ematea kiroldegian egin behar da ekainaren 10etik 21a arte.

Ba al zenekien...

Javier Prieto moto gidari beratarra hirugarren izan zela Los Arcosko zirkuituan Nafarroako motoziklismoko Irekiko lehen proban, Zona Norte txapelketan

LESAKA

HEZKUNTZA → EKAINAREN 3TIK 14RA

Musika Eskolan izen emateko epea laister irekiko da

Helduek ere matrikulatzeko aukera daukate

Aitor AROTZENA

Udal Musika Eskolak 2013-14 ikasturterako matrikula epea ekainaren 3tik 14ra zabalduko du. Herriko Etxean egin behar da 948 637005 telefonora deituz.

5 urtetik goitiko haurrak matrikulatu daitezke. Helduek ere matrikulatzeko aukera daukate (13 urtetik goitikoak adin mugarik gabe).

Zerbait gehiago behar izan ezkerreko telefono honetara dei daiteke (618264659). Musi-

ka Eskolan akordeoia, trikitixa, pianoa, klarineta, zeharkako txirula, gitarra, saxofoia, perkusioa, txistua, tronpeteta eta tronboia ikas daitezke.

Erretiratuen txapelketak

San Fermin elkarte-ko mus, seiko eta nahaste txapelketak ekainaren 3, 4 eta 5ean jokatuko dira, 18:00etan hasita. Toka, igel-joko eta pirla txapelketak, berriz, ekainaren 6an, 18:00etan. Parte hartu nahi dutenek ostatuko arduradunari eman behar diote izena eta txapelketak bukatzerakoan luntxa eskainiko da.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

Mailaz igo dira Beti Gazteko jubenilak

Gipuzkoako lehen mailatik ohorezko mailara igotzeko faseko azken partida 7-0 irabazita, lehen postua eta mailaz igotzea lortu zuten Beti Gazteko jubenilek. Larunbat honetan, txapelkun izateko finala jokatu behar zuten Elgoibarren kontra.



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

75 lagun bildu ziren 18M Plazara ekimenean

Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina halere 75 lagun elkartu ziren maiatzaren 18an Herrira Mugimenduak deitutako 18M Plazara ekimenean, "Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hiru lesakar Aian nagusitu den Emakume Probako taldean

Maiatzaren 12an ospatu zen Aian (Gipuzkoa) Asentzio Feria famatua. Baserrietako produktu eta azienak ikusgai izan ziren egun osoan. Bezperan, Emakume Proba egin zen lehen aldiz eta Ibarra, Orio eta Astigarragako emakumeen taldeak aritu ziren, zortziko taldetan, 500 kiloko harriari tiraka, lehenbiziko Biziti Iturri sarian. Horien artean Ibarra taldea nagusitu zen, hiru lesakar bertan zirela: Estitxu Almandoz, Ainhoa Altzugarai eta Rakel Deskarga. Ibarra taldeak 30 plaza egin zituen eta metro bakarrarengatik nagusitu zitzaion Orioko taldeari. Astigarragako taldeak 27 plaza pasatuak egin zituen. Hiru lesakartzat lehenbiziko Emakume proba izan zen, nahiz eta entrenatzen inauteriak pasatuta hasi ziren, Ibarra taldeak sokatirako txapelketak bukatuta. Ainhoa Altzugarai eta Rakel Deskarga Ibarra taldearekin aritu ziren sokatiran eta Euskadiko txapelkun suertatu ziren gainera.

XATURETXEA

JATETXEA
 T. 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE
 Erretegia · Asador

 Biturrana, 3 · Lesaka
 Tel: 948 637 127

BIDASOA
 TOLDOAK · PERTSIANAK
 ESTOREAK · AUTOMATISMOAK
 MOSKITERAK · KONPUNKETA
 T./F. 659 971 442
 BERA

BEKO

 LOREAK ETA LANDAREAK
 Frain Auzoa · LESAKA
 Tfnoa: 948 637 826

- Lentzeria
 - Bainujantziak
 - Mertzzeria
 - Jantzi tipikoak
 - Peñen blusak

kattagorria
 lentzeria mertzzeria
 Behoko plaza 10 31770 Lesaka
 T. 948 627 514

OSPAKIZUNAK → ALTXATAK ANTOLATUA

Gasna Feria Eguna ospatuko da ekainaren 2an

XXI. Gasna lehiaketa eta eskulangileen azoka izanen dira ekitaldi nagusiak

Irune eta Itsaso

Ekainaren 2an ospatuko da Gasna Feria eguna. Goizeko 10etatik 2etara gasna eta eskulangileen azoka egonen da ikusgai. 12:30ean herriko trikitilariak emanaldia eskainiko dute. 14:00etan Baztan-Malerreka-Bortzirietako XXI. gasna lehiaketaren sari banaketa egingen da eta ondotik frontoian bazkaria izanen da. Bazkarirako txartelak Elutsan egon dira salgai maiatzaren 28a arte. 18:00etan herriko dantzariak dantza saioa egingen dute. Egun osoan eskola zaharretan eskulanen erakusketa eta Iriondoan labrantzako tresna zaharren erakusketa izanen dira ikusgai.

Herriko okindegiko batzar orokorra

Ekainaren 4an arratsaldeko 7etan egingen da Batzar orokorra Herriko Etxeko bilera aretoan. Aztertuko diren gaiak honakoak izanen dira: joan den urteko kontuak ikusi eta onartzea, lehengo urtean itxitako ekitaldiko emaitzen erabilerarako proposamena, sozietatearen partaidetza eskualdaketen onespena, eskariak eta galderak eta batzordearen akta irakurri eta onartzea.

Txiste kontalaria Larraburuan

Ekainaren 9an Larraburuan umore eguna ospatuko da txiste bazkariarekin eta akordeoiak lagunduta. Txiste kontalaria Guillermo Segurola izanen da eta akordeoilariak berriz, Igoa eta Madariaga. Ekainaren 4a arte apuntatzeko aukera izanen da 948635081 telefonora deituz (Xoraxuriko Borda). Bazkide zein ez



ARGAZKIA: AINTZANE OLLOKIEGI

Landagain eskola LOMCE eta murrizketen aurka

Maiatzaren 9an Landagain eskolak "LOMCE eta murrizketarik ez" aldarrikatzeko zenbait ekintza egin zituen plazan. Zuzendaritza taldeak gurasoei powerpointaren bidez "Zer da LOMCEa? zein eragin du zuen seme-alabarengan?" solasaldia eskaini zuen.



ARGAZKIA: IRATI LUJUA

Elkarretaratzea presoekin elkartasunean

Maiatzaren 18an elkarretaratzea izan zen "Plazak bete kartzelak hustuko" lelopean. 100 lagun inguru bildu ziren eta deialdi nazionala 12ak aldera bazen ere zertxobait atzeratu zen txistularien ekitaldiarekin batera ez izateko. Ondotik txistulariek alaituta pintxo jatea izan zen.

bazkideentzat gonbidapena luzatua dago.

Txistulari Eguna euripean

Maiatzaren 18an Txistulari Eguna ospatu zen. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Egitarau guztia bete zuten eta giro ederrean pasa zuten eguna.

Herriko lanak egiteko kontratatuak

Langabezian dauden pertsonen artean, eta bakoitzak dituen ezagarrak aztertu ondotik, bi lagun kontratatu ditu aurten Udalak herriko lanak egiteko: Roberto Irigoien eta Marttin Zelaieta. Bakoitza 4 hilabete eta erdiz ariko da lanean.

Igerilekuko monitoreak

Ekainaren 22tik abuztuaren 25era egonen da zabalik udal igerilekua eta Oihan Iparagirre eta Julen Aranburu ariko dira zaindari lanetan. Noizbait bietako bakarren batek ordezkoren bat beharko balu, Rodrigo Martin ariko da ordezkapena egingen.

Lesaka-Bera AUTOESKOLA

Eztegara, 12 • BERA Iturrunzubiko plaza, 8 • LESAKA
948 630 652 948 637 870

ESKAINITZA BEREZIAK

- Gidabaimen guztiak
- Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etkez etxeko banaketa egingen da
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

J.RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA

ARANTZA

GIZARTEA → HEZIKETA

Pelle-ttiki Haur Eskolan aurrematrikula egiteko epea zabalik da

Maiatzaren 31 arte eman daiteke izena

Nerea ALTZURI

Pelle Ttiki haur eskola haunditzen ari da. Bi haurrekin hasi zen ikastaldia eta orain bederatzitik tiki daude. Baina aurreikuspenak egin behar dira eta maiatzaren 16an, haur eskolaren heldu den ikasturtearen inguruko xehetasunak eman zituen Koldobike hezitzaileak. 2013-2014 ikasturteko aurrematri-

kula epea maiatzaren 31n bukatuko da. 9:00etatik 13:00etara du orain ordutegia eta hori luzatzearen inguruko aukeraz solastu ziren.

Eskolaren mendeurrena

Ekainaren 8an ospatuko da eskolaren

ehungarren urteurrenoko besta. Bazkariko txartelen prezioak aldatu dira: Helduen txartela 20 eurotan izanen da (arratseko pintxo bat barne). 14 urte artekoen bazkariko txartela berriz, 10 eurotan. Herriko ostatueta salgai daude.

Ba al zenekien...

Jendarte Batzordearen ekimenez, bertako produktuak saldu eta erosi ahal izateko egitasmoa abian jarri nahi dela eta ortziral honetan arratsaldeko 7etan Baskulan gaiari buruz mintzatzeko bilera dela



ARGAZKIA: AITZIBER ALMANDOZ

45 lagun bildu zituen Herriraren ekimenak

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, 45 lagun bildu zituen plazan maiatzaren 18an Herrirak deitutako 18M Plazara Ekimenak. Elkarretaratzeaz gain, bertso afaria ere egin zen presoek eskubideen alde eta aplikatzen zaizkien salbuespen neurrien kontra.

HERRIKO ETXEA

Maiatzeko udal informazioa banatu da etxez etxe

N. ALTZURI

Berriki etxez-etxe hilabete honetako udal informazioa banatu da. Joan den otsailaren 14an Imanol Artola zinegotzi eta alkateordeak dimisioa aurkeztu ondotik, alkateak Koldobike Gorostiza aukeratu du alkateorde lanetarako.

Bertzalde, martxotik urrira bitarte Markel Jorajuria herriko lanetan ari da, Anjel udal langileari laguntzen. Langabetu bat kontratatzeagatik Nafarroako Gobernuak dirulagun-

tza emanen du. Doneztebeko enplegu bulegotik lau aranztar bidali zituzten eta udalak Markel aukeratu du. Herriko bestetan jartzten den eskenatokia zahartua eta arriskutsua zegoenez, kioskoa berritu da. Berriz ere, herrian ongi aparkatzeko deia egin da. Batez ere, Goiko karrikan agerian gelditzen da hori. Azkenik, urteko auzolanei dagokienez, egin ez dutenei ekainaren 30 arte zeregin horretarako epea dagoe-la oroitarazi du udalak.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSATUA
PINTXOAK
BOKATXAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

Xirgil
Jaloste Goye
Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

ANTZUZELAI
S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalaín, 42 A • BERA

IGANTZI

BORTZIRIAK

GIZARTEA → HERRIKO ETXEA

Euskararen erabilera plana onartu du Udalak

Erabilera indartu eta bultzatzeko

TTIPI-TTAPA

2012an Igantzi UE-MAn sartu zen, eta udalean euskararen egoera zertan den aztertu ondotik, berriki euskararen erabilera plana onartu du. Planaren helburu nagusia izanen da udalean euskararen erabilera indartzea eta bultzatzea. Horretarako administrazioiko barrene-

ko eta kanpoko harremana euskaldundu behar dira, bai herritarrekin, bai bertzelako administrazioekin.

Euskararen erabilera normalizatzeko ezinbertzekoa da herritarren jarrera aktiboa. Horregatik, herriko etxera joan behar dutenean, Igantziko Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu egin behar direnak euskaraz egitera. Beraz, herriko etxean, idatziz edo ahoz dela, lasai ederrean euskaraz!



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehun lagun baino gehiagok parte hartu zuten bi lan saioetan.

EUSKARA MANKOMUNITATEA → EUSKARARI BURUZKO GOGOETA PROZESUA

Emaitzak aurkezteko tenorea ailegatu da

TTIPI-TTAPA

Otsailean hasi eta maiatzera arte, Bortziriako Euskara Mankomunitatea gogoeta prozesuan aritu da, 2014-2017 tartean euskara normalizatzeko erronkak eta lan ildoak finkatzeko helburuarekin. Horretarako hainbat elkarrizketa sakon eta bi lan saio egin ditu; guztira 100 lagun baino gehiagok parte hartu dute prozesuan. Azken bizpahiru as-

teotan prozesuan jasotako ideiak antolatzen aritu ondotik, emaitzak aurkeztea gelditzen da. Aurkezpena Beran egingen da, Toki Ona institutuan, datorren ekainaren 7an, ortzirala, arratsaldeko 7:00etan. Aurkezpenak ordu bat iraunen du.

Aurkezpena irekia izanen da, edozeinek parte hartzeko modukoa. Dei berezia egingen zaie gogoeta prozesuan (elkarrizketetan na-

hiz lan saioetan) parte hartu duten guztiei, baita euskara batzordeetako kideei ere.

Begiraleentzako ikastaroa

Bertze aldetik, begiraleentzako ikastarok eskainiko dira ekainaren 15, 22 eta 29an Berako Beralandetan, Dindaia eta Anfasen eskutik. Izen ematea ekainaren 3tik 13ra egin behar da Mankomunitatean (25 euro).



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrira ekimenak 40 lagun bildu zituen

Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu zuen Herrirak maiatzaren 18an eta 40 lagun bildu ziren herriko plazan, euriari aurre eginez.

LESAKAN



Kooperatiban babes ofizialeko 16 etxebizitzaren promozioa

- 90m²ko etxebizitzak maila altuko akaberarekin
- Hiru logela, bainugela kompletua, balkoi handiak
- Aparkalekua garajearen eta trastelekua
- Beheko solairu eta hiru altura gehiagoko etxebizitzak igogailuarekin



LARREATEGI kooperatiba

T. 948 317 136 | M. 609 723 707 | espartal.clientes@gmail.com

GIZARTEA

GIZARTEA → MENDIALDEKO MANKOMUNITATEEN PROTESTA

Babestutako Gizarte Lana burutzeko dirulaguntza deialdiak herri txikiak kaltetzen dituela uste dute

Elkarretaratzea egin dute hilaren 27an Iruñean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuari 2013an Toki Era-kundeetarako eta hain zuzen, Babestutako Gizarte Lan proiektuak garatzeko oinarriak ezartzen dituen dirulaguntzen deialdiaren Foru Agindua aldatzeko eskatu diote Ultzama, Malerreka, Altsasu, Irurtzun, Etxarri Aranatz, Leitza, Bortzirriak eta Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek, Nafarroako mendialdeko herri txikiak guztiz kaltetuak aterako direlako. Horretarako, helegitea aurkeztu diote dirulaguntza arautzen duen Foru Aginduari.

Gizarte Mankomunitateetako ordezkariak diotenez, «orain arteko proiektuetan ez bezala, esleipen irizpideak aldatu egin dituzte eta zonalde bakoitzeko behar



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendialdeko Mankomunitateetako ordezkariak, Iruñean hilaren 22an egindako agerraldian.

zehatzei erantzuteko aukera izan beharrean, biztanlego kopuruari lehentasuna eman zaio eta ondorioz herri txikiak kaltetan aterako dira». Azaldutako keax bereziki azpimarratu nahi du Mankomunitate bakoitzari jartzen zaion muga, mila biztanleko gehienez 3 hilabeteko kontratazioa egiteko aukera besterik ez baitu onartzen dekretuak. Horrek erran nahi du, hiriburu eta herri haun-

diek askoz aukera gehiago dutela kontratazioak egiteko eta aldiz, herri txikiak aukera guztiz baldintzatua gelditzen dela.

Irizpide aldaketa hauek oraindik gehiago larriagotzen dituzte azkeneko hiru urtetan jasadako murrizketen ondorioak eta babestutako gizarte lanaren egoera prekarioa. Guztira %70ko murrizketa jasan du (2010ean 7.170 euroko dirulaguntza izan

zuten proiektuak, eta 2013an 2.194 eurokoa besterik ez da izan). Honek kolokan utzi du gizarteratze beharrei erantzuteko aukera.

Enplegu baliabidea izateaz gain, bertan akonpainamendu sozialaren eta formakuntzaren garrantzia azpimarratu nahi dute Gizarte Mankomunitateek eta elkarretaratzea egiteko zuten hilaren 27an Iruñean, Gizarte Politika Sai-leko bulegoen parean.

BORTZIRIAK

Zakurren txerto kanpaina laister abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako txerto kanpaina ekainaren 3an abiatuko da Bortzirietan. Arantzako Aientsa eta Eguzkialdean izanen da albaitea, Osilekobordan (15:30) eta Anguleroan (16:30). 18:00etan, Igantziko Irisarriko zakurrak hartuko ditu Mendibilen. Ekainaren 4an, Arantzako Bordalarrean izanen da (16:00) eta Herriko Etxeko arkupeetan (17:00-18:30). Ekainaren 5ean, Igantziko aparkalekuan izanen da (16:00-18:00) eta Berrizaunen (18:30-19:00). Ekainaren 6an, Lesakan izanen da. Auzoberrin (15:30), Zalan (16:30) eta Nabazen (17:30-18:30). Ekainaren 10 eta 11n, Lesakako herrigunean izanen da, suhiltzaileen ondoko almazenean, 16:00etatik 18:30era. Ekainaren 12an eta 13an Berako elektrobian (16:00-19:00) eta ekainaren 14an Etxalarren (16:00-19:00).

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA: 948 638 232
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean) 31770 LESAKA

zatoz denda berria ezagutzera!!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 • BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 17TIK 19RA EGIN ZEN

Euriari aurre egin eta bikain aterazen Asteburu Kulturala

Migeliko Anzizarrek irabazi zuen gazta lehiaketa

Maider PETRIRENA

Eguraldiak ez zuen batere lagundu Asteburu Kulturalan, baina frontoian egin ziren ekitaldi guztiak.

Ortziralean haur joakoak izan ziren; proba konbinatuak, aulkia jokoak, zankoak, margotze tailerra, baita aurpegi margotzeko aukera ere. Ondoren txokolata goxo goxoa izan zen. Gauean musa izan zen Bustitz ostatuan. 14 bikotek parte hartu zuten eta irabazleak Tere-sita Agirre eta Jose Miguel Galain izan ziren.

Larunbatean Mendi eta Bizikleta ibilaldiak egin ziren, baina eurien eraginez, 9 lagunek bakarrik parte hartu zuten Mendi ibilaldian eta 5 bertzerik ez Bizikleta-koan. Eguerdian Arizti-gain kanpinean 50 gaztek egin zuten beraien otordua baita jo-kuak eta karaokea ere.

Bazkalondoan haurrek Gorritiren animaliekin jolastu eta berendua izan zuten. Herriko antzerki taldeak *Sonrisas y Lágrimas* pelikularen antzezlanak egin zuten. Akitze igandean, 5. artisau feria ikusgarria izan zen. Herriko talogileek, txistorra, txokolate eta gaztako taloak saldu zituzten, iazkoa-

ren dolea. Mila boleto ere saldu ziren atsaldeko 7etan zozketatu zen sari eder batendako. Eguerdian herriko haur dantzariak beraien ikuskizuna eskaini zuten. Eguerdiko 14etan feria itxi eta Ulibeltzak Elkartean egin zen bazkaria, artisauekin eta lan egiten ari zen jendearekin. Arratsaldean ere feria ikusteko modua izan zen. Haurrek ere birziklapen tailerra egiteko aukera izan zuten esne kajekin: kareta, cd-ak eramateko boltsitoak, boltsok, karterak, lo-reak...

GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Arratsaldeko 7etan gazta lehiaketaren emaitzak jakitera eman ziren. Txapelduna Migeliko Anzizar (60 euro) izan zen, bigarrena Josefina Jorajuria (40 euro) eta hirugarrena Pri-menekoborda baserriko gazta (20 euro). Ordu honetan ere sariaren zozketa izan zen. Irati Zugarramurdi neskak atera zuen zenbakia eta hau Klemente Iriarteri tokatu zitzaion. Azkenik 10 gazten erdika guztiak, hau da 20 puska gazta zozketatu ziren, sarirako erositako boletoaren zenbakiarekin.

Ezin hobeki joan da Asteburu Kulturala eta eskerrak zorianak eta ikusgarria izan zen. Herriko talogileek, txistorra, txokolate eta gaztako taloak saldu zituzten, iazkoa-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA MARIA SARRATEA

Argazkietan ageri denez, parte hartze handia izan zen Asteburu Kulturalan.



ARGAZKIA: JOSUNE AGIRRE

Malerrekako Egunerako herriko mus ordezkariak

Maiatzaren 11n, Malerrekako mus txapelketarako kanporaketa egin zen Sunbillan. Bertan jokatu zuten lehendabiziko bi bikoteek maiatzaren 25eko Malerrekako Eguneko finalean jokatu zuten Eratsunen. Jose Martin Agirre eta Jon Apezetxea izan ziren txapeldunak eta Mikel Arrieta eta Xabier Rojas berriz azpitxapeldunak.

ARGAZKIA: INES ELIZONDO

Esther Apeztegiak 200 euroko erosketa balea Donezteben

Maiatzaren 10ean Doneztebeko Udaberriko feria ospatu zen. Bertan Doneztebarrak elkarteko komertzioak lehen urtez kanpora atera ziren eta 200 euroko lau erosketa txartela zozketatu zituzten bezeroen artean. Horiatariko bat Sunbillako Esther Apeztegiari tokatu zitzaion, bere biloba Xabier Gorriaren eskutik atera. Argazkian, Jone eta Xabier Gorria bilobekin ageri da Esther.



DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → BEZPERAN ERE ZENBAIT EKITALDI

Errekaren Eguna ekainaren 8an ospatuko da

Niko Mindegia eta Ibai Meoki ariko dira aurten ere izarren taldean

TTIPI-TTAPA

Errekaren Eguna ospatuko da ekainaren 8an, Erreka elkarteak udalaren laguntzaz antolatuta. Bezperan ere zenbait ekitaldi izanen dira.

ORTZIRALA, EKAINAK 7

- 16:30: Erreka Pilota Eskolako Finalak 4 terdiaren barranean
- 20:00: Proiektzioa Igor Agestaren eskutik Leku Eder Zineman, mendi eskaladari buruzkoa.
- 22:00: Santa Luzia Plazan Mus Txapelketa.

LARUNBATA, EKAINAK 8

- 9:30etik aitzinera kiroldegian partidak.
- 9:30: Errekak alebin mutilak eta neskak.
- 10:30: Infantil neskak.
- 11:30: Infantil mutilak:

Erreka - Anaitasuna (kopa irabazi duen herriko taldea, liga irabazi duenaren kontra)

- 12:30 Errekako Judo Eskolako erakustaldia.
- 15:30: Eskubaloia Benjaminak.
- 16:30: Jubenilak vs Beteranoak (aurten-go jubenilen taldea, Txomin eta Iban Mindegiak entrenatzen dutena, Errekako jokalariei ohien kontra).
- 17:30: Triangular handia: Erreka A, Erreka B eta Izarren Taldea. Errekako talde seniorra bi taldetan banatua eta Izarren konbinatu bat. Horien artean, nola ez, Niko Mindegia (Naturhouse Logroño) eta Ibai Meoki (Anaitasuna), Asobal mailan ari diren bi doneztebarrak. Partiduen artean Errekako Dantzarien erakustaldia.
- 21:00 Herri Afaria Santa Luzia Plazan (txartelak Titi Ostatuan ekainaren 5a arte).
- Gaupasa DJ Luismirrekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

LOMCE Hezkuntza kontraerreformaren aurkako elkarretaratzea

Doneztebeko eskolako lehen eta bigarren hezkuntzako hainbat irakasle eta guraso bildu ziren maiatzaren 9an gobernuak onartu duen LOMCE hezkuntza kontrarreformaren aurka protesta egiteko. Izan ere, lege honek eskola publikoaren baloreak deusezten dituela uste dute. Bilkuran adierazi zuten, «Erreforma berzentralitzailea, antidemokratikoa, publikoaren kalterako irakaskuntza pribatua sustatzen duena, merkantilista, baztertzaila, curriculuma guztiz aldatzen duena, laikotasunaren eta baloreen hezkuntzaren kontrakoa, desberdintasunak sustatzen dituena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahazten duena eta irakasleen lana gutxiesten duena da». Horregatik guztiatik Ez haundi bat erran zioten LOMCEri, «eskola publikoa denona eta denontzat delako».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Shanti eta Titi Ostatuak irabazi dute 6. pintxo lehiaketa

Maiatzaren 15ean banatu ziren Herriko Etxean seigarren pintxo lehiaketaren sariak. Zortzi ostatuak parte hartu aurtengoan eta epaimahaiaren sari nagusia Shanti ostatuarentzat izan da. Publikoarena berriz, Titi ostatuarentzat izan da. Shanti ostatuak desmigatutako ahate delizien brika foierekin, saltsa gazi-gezan eta sagar konpotarekin aurkeztu zuen eta udalak emandako oroigarriaz gain, Iruñeko Alhambra jatetxean bi lagunendako bazkaria irabazi zuen. Titi ostatuak, berriz, zigalak meloiarekin eta aguakate kremarekin aurkeztu zituen. Bi ostatu hauek gain, Amezti, Bixen, Ekaitza, El Café eta Maylin ostatuak hartu dute parte. Bozketetan parte hartu zuten bezeroen artean Inurrieta ardo lote bat zozketatu zen eta Irrintzi ostatuan bozkatu zuen Asier Mutuberria Santestebanek eskuratu zuen.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

JUAN J. PICABEA



%10^{eko}
DESKONTUA
marka batzuetan
ezik

GIZARTEA → MALERREKAKO EGUNERA JOATEKO

Manolo Ganboa eta Xabier Irisarrik irabazi zuten mus txapelketa

Endika eta Iñigori irabazi zioten finalean

Mattin LARRALDE

Malerreka Eguneke mus txapelketan jokatuko sailkapen partidak jokatu ziren Herriko Ostatuan maiatzaren 10ean. Lau bikote aritu ziren lehia, eta finalera Endika eta Iñigo alde batetik eta Manolo eta Xabier, bertzetik, ailegatu ziren.

Oso partida polita ikusi zen eta azken momentura arte gauzak parekatuak izan ziren. Bi bikoteek merezi zuten irabaztea baina bat iza-

ten da txapelketa. Azkenean, Manolo Gamboa eta Xabier Irisarri izan ziren txapelketa eta euren osatutakoa izan da Elgorriaga ordezkatu duen bikotea Eratsunen. Hurrengo alean jakinen dugu Eratsunen irabazterik izan duten edo ez.

Lehen jaunartzeak

Beste aldetik, maiatzaren 19an bost gaztetxok lehen jaunartzea egin zuten elizan. Aina, Andrea, Egoitz, Ekiñe eta Yenidire dira bost gaztetxoen izena. Egunderrera pasatu zuten euren familiarekin. Zoriona guztiei!



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Herriko mus txapelketako finalistak ageri dira goiko argazkian eta lehen jaunartzea egin zuten neska-mutikoak behekoan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

2013 UDABERRI- UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

ITUREN

KIROLA → BTTAREKIN LIDER DA EUSKADIKO IREKIAN ETA RURAL KUTXA KOPAN

Espainiako txapelketan laugarren egin du Seinek

Arkaitz MINDEGIA

Javier Sein bikain dabil BTT bizikletarekin. Euskadiko irekian eta Caja Rural kopan lider doa, jokatu dituen azken bilasterketak irabazi ondotik. Berriki Nafarroako selekzioarekin konbokatuta Espainiako txapelketan parte hartu zuen eta karrera bikaina egin ondotik laugarren postuan bukatu zuen. Honela, Espainiako rankinean laugarren dago.

Udalekuak

Uztaila eta abuztuaren ituren ere udalekuak edo ludoteka izanen da. Egitasmo hau aurrera eramanen dute Izaro Ariztegi eta Ixiar Bazte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bikain dabil Javier Sein mendi bizikleta probetan.

rrikak. Bi hilabete hauetan gisa guzietako ekintzak burutuko dituzte, ateraldiak, tallerrak, dantzak, jolasak...

2 urtetik gorakoentzat dago zuzendua eta ordutegia bileran zehaztuko da, gurasoekin egon ondotik. Apuntatzeko 679 512 963 telefonora deitu behar da.

Aurtizko Ostatua

Denbora dexente darama Aurtizko ostatuak atearak itxita. Herriko bes-tatan, azaroan, ireki zitu- en atearak azkenekoz gazteen eskutik. Pare bat deialdi egin dira norbaitek alokatzeko, baina ez da inor ere aurkeztu. Duela gutti hasi

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 1 ETA 2AN

Uritzako fiesta eta Bestaberri ospatuko dira asteburuan

Fermin ETXEKOLONEA

Ekainaren 1ean, larunbatarekin egingen da Uritzako fiesta, zortzigarren urtez. Beti bezala, aterpe bat moldatu da eta bazkaria egingen da. Herriko soinuariak ere giroa alaituko dute. Biharamonean Bestaberri izanen da eta azkeneko urteetan bezala, gazta lehiaketa egingen da. Irabazleak bi otordu izanen ditu Herriko Ostatuan eta bigarre-

nak bi botil ardo. Hautetsiek herrian kontura bazkaria egiten dute eta gero udalak berendura gonbidatzen ditu herri-tarrak, lehiaketara aurkeztutako gaztak aprobetxatuz. Herriko soinuariak ere ariko dira.

Berrikuntza bezala, aurten Herriko txokorik politena lehiaketa egingen da. Ez da preziso balkoia izan behar, ataria, leihoa... Txitxillo elkarteko kide batek, zi-

negotzi batek, Cederna ko teknikariak eta aditu batek osatuko dute epaimahaia. Berendatzeko denboran saria emanen da. Hemen ere lehenbizikoak bi otordu izanen ditu eta bigarrenak bi botil ardo.

Gazteen besta

Ekainaren 15ean gazteek besta antolatu dute, egun osoko egitarauarekin. Inauterietan valentziar batzuk



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea

Maiatzaren 19an lehen jaunartzea egin zuten hiru neska-mutikok, Xabier, Aimar eta Janirek.

diren udal langileak hor-txe dabilta txukuntzen, kontraleihoak pintatzen... lan hauek burututa udalak berriz ere deialdia egingen du.

Trukerreka Azoka

Malerreka Trukerreka kideak ekainaren 9ko azoka prestatzen dabilta. Aurreko hilabeteakoa bezalakoa izanen da, baina hilabete-jende gehiago hurbiltzen ari da.

Ander Erasun finalera

Ander Erasun aizko-lariak Urrezko Aizkorako sub-23 finalerako txartela lortu du, Leitzako finalaurrekoan kanpoan utzi baitzuen Ruben Saralegi. Anderrek 19 minutu eta 44 segundo behar izan zituen lana burutzeko eta Saralegik 24 minutu eta 11 segundo. Anderrekin batera Julen Kañameres sailkatu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea

Lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 12an zazpi neska-mutikok: Marion Elizalde, Lora Santesteban, Luaia Fagoaga, Iker Loiarde, Aimar Iribarren, Saioa Mariezkurrena eta Ixone Elizalde.

ezagutu zituzten eta handik etortzekoak dira, paella prestatu eta

beste ekintzetan parte hartzera. Programazehatzagoa hurrengoan.

MALERREKA

GIZARTEA → BIRZIKLAPENA BULTZATUZ

Doneztebe Udaberritua ekimena arrakastatsua izan da

Mendaur eta Erreka guraso elkarteek antolatua

Arkaitz MINDEGIA

Mendaur eta Erreka guraso elkarteek antolatutako Doneztebe Udaberritua ekimena arrakastatsua izan da. Birbira taldearen laguntzaz, 200 ume baino gehiagok parte hartu dute antolatutako zazpi tailerretan. Tailer hauetan loreak, kutzak, 26 txorimalo egin dira eta eskola barrenean, nola kanpoan ikusgai daude.

Ekimen honetan birziklatutako materialak landu dira helburu des-

berdinekin: birziklapenaren mundua ezagutaraztea, eskuz egindako materialen trebezia lantzea, elkar-lana bultzatzea, eskola apaintzea, eta, batez ere, ongi pasatzea.

Malerreka kantuz eta literatur solasaldiak

Malerreka kantuz ekainaren 13en Saldia-sen egingen da, 12:00-etan plazan hasita. Bertze aldetik, ekainaren 13an *Literatur Solasaldiak* programaren bigarren saioa egingen da Sunbillako Herriko Etxeko ganbaran, 20:00-etan. Mikel Tabernarekin Alkatoroko benta liburuaz ariko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tailer hauetan 200 ume baino gehiagok hartu dute parte eta 26 txorimalo egin dituzte.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Ahari onenak saritu dituzte Doneztebeko Udaberriko Ferian

14 buru aurkeztu ziren maiatzaren 10eko ahari lehiaketara, 9 artzainen eskutik. 5 mutur beltzen artean, Donamariko Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutakoarentzat izan zen 120 euroko lehen saria eta baserri bereko bertze batenzat 50 euroko hirugarren saria. 70 euroko bigarren saria, berriz, Beintza-Labaiengo Iñarreko Angel Elizondorentzat izan zen. Mutur gorrien atalean, 9 buru aurkeztu ziren. Lehenbiziko saria Oizko Telletxenekobordako Lucio Telletxearentzat izan zen. Bigarren saria Iturengo Zubialdeko Isidro Bazterrikak eskuratu zuen eta hirugarrena Donamariko Porotxeko Jose Miguel Lasagak.

URROZ

LANAK → HAINBAT ATZERAPENEN ONDOTIK

Goiko ur hornidura sarea berritu da

Joseba URROTZ

Hainbat atzerapenen ondotik, eginga dago goiko ur hornidura berri-zearen lana. Urte batzuk pasatu dira proiektua onartu zenetik; hasieran, gobernuaren aldetik dirulaguntza zailantzan egon zen baina azkenean lortu zen eta lanak esleitu ziren. Sasoieraikuntzak enpresari egokitu zitzaion lanen egitea eta hauek ere ez dute lan erraxa izan,

eguraldi kaxkarra egin baitu azken aldian, mendian lanean aritzeko. Honez gero, martxan dago instalazioa, asfaltiko hodi zaharrak aldatu eta hobekuntzak eginez, bertze urte morderoxka baterako lasaitasuna izanen da.

Marvin taldearen bideoa

Aitzineko ale batean aipatu bezala, argitaratu dute Iruñeako rock



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ekainaren 22an ospatuko da artisaun eguna

Iaz bezala, aurten bigarren aldiz Artisaun Eguna izanen dugu Urrotzen, Ekainaren 22an hain zuzen ere. Egitaraua ia zehaztua dago, baina izanen duzue horren berri ondoko alean; azoka, zozketak, erakusketak, bazkaria eta musika ez dira faltako. Hartu tarteak egun hortarako!

talde gaztearen bideoa, leurtzako urtegieta grabatu zutena, bertze le-

ku batzuen artean. Interneten ikusi daiteke, Youtube atarian: "Esta-

re atento" izeneko kantua da. Merezki du ikustea!

GIZARTEA

GIZARTEA → MAIATZAREN 30ERAKO ANTOLATU DUTE

Grebarekin bat egiteko deitu dute ELA, LAB eta EHNEK

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 30ean greba orokorreko deialdiarekin bat egiteko deia egin dute ELA, LAB eta EHNE sindikatutik.

ELAren izenean Jose Mari Arribillagak eta LABen izenean Koldo Saenzek eman zuten deialdiaren berri eta azpimarratu nahi izan zuten «ez dela greba laborala soziala baizik. Krisi sozio-ekonomiko larri baten aurrean gau-

delako eta horrek denei eragiten digu. Azkeneko Lan eta Negoziazio kolektiboaren erreformek negoziazio kolektiboa blokeatu eta lan baldintzen haustura totala suposatu dute».

Eskualdeko bi sindikatu nagusien ustez, «krisia hasi zenetik gobernu ezberdinek inposatzen dizkiguten politikek emaitza bakarra izan dute: krisian oraindik eta gehiago sakon-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

ELA, LAB eta EHNEK Beralandetan egindako agerraldian.

tzea. Bizi dugun egoera ez da krisi ekonomikoaren ondorioa, honen aitzakipean martxan jarri dituzten politiken ondorioa baizik. Politika hauen helburua herritarrak pobretzea eta eskubideak kentzea da, betikoeak aberasten ja-

rraitzen dutela bertamatzeko».

Greba egunean, 12:30ean manifestazio sindikala deitu dute Avia gasolindegitik abiatuta eta 18:00etan Lesakan eta Elizondon manifestazio herritar sozialak izanen dira.

Aitzinetik, maiatzaren 24an kotxe karabana ibili zen eta burrunba egin zuten Elizondon UPNren egoitza parean. Maiatzaren 27an, berriz, kontzentrazioa egin zuten Doneztebeko Enplegu Bulegoaren parean.

ARKUPEAK → MAIATZEKO ATERALDIAK

Mendirik mendi eta bidaiez bidai segitzen dute elkarteko jubilatuek

TTIPI-TTAPA

Maiatzean ere bere hitzaldi, ikastaro, bidai eta mendi ateraldiekin segitu du Arkupeak elkarteak.

Maiatzaren 2an 107 bazkide joan ziren Lourdesera eta aurreko urteetan bezala, elizkizunetan parte hartu zuten, baita Mikel Biain Doneztebeko apezak basilikan emandako mezan ere. Bazkalondoan errosarioa erreztatu zuten eta erien prozesio hunkigarria ere ikusi zuten.

Mendi taldea Ireberredera igo zen, Uitziko gainetik abiatuta. Ondotik,

ospakizuna ere izan zuten Lekunberriko Leku-OnBerri jatetxean, Fernando xerpak 71 urtebetzeagatik cava kopa banara gonbidatu baitzituen guziak.

Maiatzaren 4an, berriz, Goiz Mendi taldeak bere ohiturari eutsi dio. Taldekide batek 70 urte betetzen dituenean mendi ateraldia eta bazkaria izaten dute. Oraingoan, Ana Huartek egin zituen urteak eta mendirajoa eta gero, Mendialde jatetxean bazkaldu zuten.

Ikastaroei dagokierenez, sendabelarrena hasi da ostiraletan,



16:00etatik 18:00etara. Ikastaroa praktikoa izan dadin zenbait ateraldi eginen dituzte, belarrak bildu, identifikatu eta bakoitzaren ezaugarri terapeutikoak ikasteko.

Maiatzaren 6, 7 eta 8an, Nafarroako Pirinioira joateko eta 9an Santander eta Asturias aldera atera ziren autobusak.

Maiatzaren 23an berriz, 212 bazkide joan ziren Bordeleko feria famatura. Egun bakarrean dena ikustea ezinezkoa dela aipatzen dute bertan izan dire-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko mendizaleak Ireberren eta Mendialde jatetxean egindako bazkariaren ondotik.

nek eta horregatik, bakoitzak interesgarriena iruditzen zaiona bixitatu zuen.

Maiatzaren 20an, Benidormera joan zen beste talde bat, hamabi egun pasatzera.

BERTIZARANA

OSPAKIZUNAK → HAINBAT EKITALDI LARUNBATEAN

Bertizaranako Eguna ekainaren 1ean ospatuko da Legasan

Julen Zelaieta eta Iñaki Aleman ariko dira bertsoan bazkarian

Martin BERTIZ

Legasa, NARBATE eta Oieretik osatzen duten Bertizarana bailarak, bere eguna ekainaren 1ean ospatuko du. Joan den urtean NARBATE ospatu ondotik, Legasaren txanda ailegatu da. Hainbat ekitaldi an-

tolatu dira larunbatean adin guztietako herritarrentzat. Hona hemen egitaraua:

- 9:00 argi soinuak NARBATE, Legasa eta Oieregin.
- 10:00 gosaria. Ondoren mus txapelketa.
- Goiz osoan zehar BKZ-ko zuhaitzetan eta puzgarrietan ibiltzeko aukera (gurasoen ardurapean).
- 11:00 Bertizaranako I. Frontenis txapelketako finala.
- 12:30 trikitilariekin



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguraldiak laguntzen badu, giro ederra izanen da aurtien ere Bertizaranako Egunean.

kalejira.

- 14:00 bazkaria Legasako plazan, Julen Zelaieta eta Iñaki Aleman bertsolariak alaitua.

• Bazkal ondoren, trikitilariekin kantu zaharrrak.

- Gauean afaldu nahi duenak bokata jateko aukera izango du (al-

dez aurretik apuntatu bazkariko txartelarekin batera).

- Arratsalde eta gauean dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Bikarioaren bisita

Duela gutti NARBATEko apaizak eman zuten berria, bi larunbate-

tik emanen zuela meza aurrerantzean eta horren arrazoiak azaltzeko bikarioa maiatzaren 18an herrira etorri zen. Ez omen dago apaizik horrenbeste elizandako eta aurrerantzean horrela izan beharko duela izan zen bere azalpena.

BERTIZKO NATUR PARKEKO JAUREGIAN

Bi erakusketa ikusgai daude ekainaren 30a bitarte

TTIPI-TTAPA

Bertizko Natur Parkeko jauregian bi erakusketa daude ikusgai. Pedro Ciga erakusketa gelan, *Pedro Ciga eta Dorotea Fernandez azken jabe partikularren argazki zaharrak* erakusketa dago ikusgai. Bidasoa Erreka erakusketa gelan, berriaz, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki-Administrazio Departamentuak,

Hezkuntza Departamentuarekin batera Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako *Zer da zuretzat basoa?* margo eta argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikus daitezke. Bi erakusketen ordutegia, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Helduek 3 euroko sarrera ordaindu beharko dute (65 urtetik goitikoek eta pentsionistak doan).





HILABETE HONETAKO
ESKANTZA

80€

250 Bisita txartel

Koloretan bi aldeetatik
300g (85cm x 55,6cm)
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

BISITA TXARTELAK
TURISMO ETXEA - LANTEGIAK
JATETXEA - DENDAK - TAXIAK,...



Keskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

EZKURRA

GIZARTEA → DEMOGRAFIA DATU ILUNAK

Desagertzeko bidean dago herria?

1999tik hona bizilagunen %33 galdu du eta gehiengoak 65 urte baino gehiago ditu

Fernando ETXEBERRIA

Duela hilabete batzuk eskualdeko langabezi datuen berri eman zuen TTUPI-TTAPAK eta datu kezkarrien artean, Ezkurra ageri zen langabetu gutxien zuen herria bezala (8). Azkeneko alean, berriz, oraindik datu kezkarriagoak ageri ziren eskualdeko egoera demografi-

koaren inguruan. Gaindegiako datuen erabera, Ezkurra "alerta gorrian" dago, epe ertainean desagertzeko arriskuan. 1999tik hona bizilagunen %33 galdu du, populazioaren gehiengoak 65 urte baino gehiago ditu, 10 urtetik beherako 8 haur besterik ez dago eta amatasun indizea oso-oso pobrea da. Artikuluan ageri denez, «Ezkurak ezaugarri demografiko beldurgarriak ditu. Oinarri horrekin ezin dio zahartze prozesuari gain hartu».

Zergatik gertatu da deskalabru hau? Hain-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

164 bizilagun daude gaur egun Ezkurran erroldatuak.

bat faktore aipatzen dira: lana herritik kanpo, oinarrizko zerbitzurik eza, komunikabideen garapen eskasa, nekazaritza gizartetik industrialera pasatu izana... "Ezkurra, herri berezia" liburuan prozesu demografikoari buruzko datuak biltzen dira. Lehenbiziko datuak 1197. urtekoak dira. Orduan ez zeukan forurik, gutti-neko bizilagun kopuru-

rik ez zuelako. 1350. urtean 50 etxe zituen. 1796an 592 bizilagun zituen. 1940an, Espainiako Gerraren ondotik, 572 bizilagun zituen. Geroztik, behera joan da kopurua eta gaur egun 164 bizilagun daude erroldatuak. Ez da egiazko kopurua, gainera, batzuk ehizarengatik herrian erroldatuak baldin badaude ere, kanpoan bizi baitira.

Herriak zazpi taberna ere izan zituen, gaur egun bakarra gelditzen da. Bospasei janaridendak desagertu ziren eta 100 ikasle ere izan zituen eskolak 1999an itxi zituen ateak, bost urte baino gutxiagoko 4 ume besterik ez zeudelako. Etorkizun kezkarri honi aurre egiteko neurri egokiak hartu beharko lirateke, baina zein? Hor dago kokka.

BEINTZA-LABAIEN

SOLASALDIAK → EKAINAREN 8AN

Jakoba Errekondok hitzaldia emanen du Iturriondon

TTUPI-TTAPA

Nork ez daki larunbat goizetan Euskadi Irratian aritzen dela landareetatik jolasean? Larunbat honetan zortzi, herriko soziedadean izanen da (11:00etan), eta radioan bezalaxe ariko da jendeari esplikazioak ematen txertoak nola egin, adarrak noiz moztu, hazia noiz ererin, surfiniari zenbat ur eman... Edozein galde-modu egin nahi dionak aprobeatza dezala ekai-

naren 8an. Lehenik, bera ariko da jolasean, eta akaberan, edozein galde-moduri erantzutera saiatuko da.

Hitzaldia bera debalde da, eta anima dadila jendea. Hitzaldiaren ondotik, bazkaria izanen da. Bazkaldu nahi duenak txartela 15 euro da, eta txartela hartu nahi duenak deitu telefonon honetara ekainaren 6a baino lehen: 646635524. Jakoba ere bazkaltzen geldituko da,

eta, norbaiterik kezka bat gelditu bazaio landareen gainean, modua izanen du edozein gauza galdetzeko mahaia- ren inguruan.

ILARGIA

Ilargiarekin ere bada gorabehera franko azken boladan, eta horretaz ere behar diren esplikazio guziak emanen ditu.

Lehengo zaharrek beti begiratu izandu diote ilargiari, eta haiei ika-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jakoba Errekondo Iturriondon izango da hizlari.

sia diegu pagoa noiz bota edo ezpelak zer ilargiarekin duen su ona, baina kalendarioak etxeetan sartuz geroztik nahasi samarrak ibili gara. Kalendario normalan oker etortzen baitira beherapenak eta gorapenak. Ez dira gauza

bera *beherapena* eta ilargia ttikitzea. Eta kalendario ia guzietan, *beherapena* esaten diote ilargia ttikitzeari, oker; zenbait egunetan, ordea, gertatzen da ilargia ttikitzen ari dela eta gorapena izatea aldi be- rean.

Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

Isabel ELIZALDE, Cederna-Garalur elkarteko zuzendari-gerentea

“Eskualde bakoitzetik sortu behar dira Cederna-Garalurren eginkizunak”

Isabel Elizalde Arretxea, Cederna-Garalurreko zuzendari-gerentea azaldu digunez, Nafarroako Mendialdeko eskualde bakoitzean garapen dinamika propio bat bultzatzeko lanean ari dira. Eskualde bakoitzean lan-mahaiak edo lantaldeak sortu nahi dituzte. Elizaldek, bestalde, Administrazioen eta eragileen arteko elkarlanaren onurak aldarrikatu ditu.

Cederna-Garalurrek zein helburu jarri dizkio bere buruari?

Helburu nagusia eskualde bakoitzak bere garapen dinamika sortzea da. Benetan garapena behetik gora egitea eta, horretarako, mahaiak edo lantaldeak osatzea. Cederna-Garalurren eginkizunak eskualde bakoitzetik sortu behar dira. Poliki-poliki ari gara. Hainbeste erakunde eta eragileekin elkartu gara. Gure hurrengo pausoa aipatutako mahai horiek benetan eskualdeko motorrak izatea da. Bestalde, esan behar da bost lan arlo nagusi markatu ditugula: ondarea, turismo, merkataritza eta zerbitzuak; lehen sektorea eta basoak; prestakuntza eta enplegua; teknologi berriak, komunikazioa eta berdintasuna; garapen estrategiak eta horien inguruan sortu eta antolatutako estrategiak.

Eskualdeetako diagnosiak egin dituzue, ezta?

Eginak eta edozeinek erabili nahi baldin baditu hor dituzte eskura, www.cederna.es orriari zintzilikatuak daude. Eskualdeetan gurekiko izan zitezkeen eskaerak eta jarrerak ere jaso ditugu. Eta garrantzitsuena, eskualde bakoitzean ikusten diren ahultasunak eta indarrak ezagutzeko,



Isabel Elizalderen ustez, «elkarrekin joaten bagara eta elkar lagunduz, indarra, baliabideak eta bideak bilatzeko aukera gehiago izanen ditugu».

eginbeharrak zehazteko eta lehentasunak markatzeko balio izan dute diagnosiak. Ez dira dokumentu itxiak, irekiak dira eta lan tresna bezala erabiltzeko egin dira.

Orain arteko estrategiak aldatuko dira?

Estrategiak aldatzen joan den urtean hasi ginen. Lan arloak zehaztu ditugu, hasi gara batzordeak osatzeko eta martxan jartzeko prozesuekin... Laster, gaur egun Antsoainen dauden langileak eskualdera hurbilduko dira. Bestaldek, erakundean eragile pribatu gehiago egotea eta parte hartze handiago edukitzea nahi dugu.

Eta ondoren?

Etorkizuna. Nafarroako Mendialdeko etorkizunari lotuta egonen da, bertako erakundeek eta eragileek esan beharko dute. Nire ustez Nafarroako Mendialdeak, elkarrekin joaten bagara eta elkar lagunduz, indarra, baliabideak eta bideak bilatzeko aukera gehiago izanen ditugu. Hau da, nik nire arazoak bakarrik ikusten baditut eta ez bestearenak, aurrean bide zaila izanen dut irtenbideak bilatzeko. Elkar ezagutzeak eta elkar ulertzeak lagunduko gaitu gure baimaratan bizitzera, lan egitera eta gozatzera.

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi, 606 43 13 57 / bidaso@cederna.es • **Izaskun Abril**, 606 40 86 13 / baztan@cederna.es • **Elena Irigoien**, 617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B • Orduetgia: 09:00 / 16:00 • 948 62 51 22 • bidaso.admon@cederna.es



LEITZA

NATURA → IHARTUTA ZEUDEN

Izaieta monumentu naturalean hiru izei bota dira

Sortzen zuten arriskua ekiditeko asmoz

JM BARRIOLA

1991. urtean izendatu zituzten Leitzako izeiak (*abies alda*), Nafarroko monumentu natural. 53 dira denera eta zutoi tenteak 40 metrotik gorako luzera dute. Dirudienez XIX. mendean mintegi bat zen toki hau, eta Iratitiek ekarriko zituzten izei landareak edo haziak gero beste lur eremu batzuetara aldatzeko; zerbaitengatik bertan gelditu ziren eta orain ikusga-

riak dira. Bisitari asko joaten da bertara hauek eta inguruan dauden zuhaitz multzoak ikustera. Horregatik, Nafarroko monumentu naturalen arduradunak ihartuta zeuden hiru izei botatzeko eskatu zuen, sortzen zuten arriskua ekiditeko asmoz.

Pelikula egiteko asmoa

“Ocho apellidos vascos” pelikula grabatzeko asmoa dute herriko alde zaharrean. Emilio Martínez Lázaro zuzendari madrildarrak zuzenduko du eta bertan artista ezagunak hartuko dute parte, besteak bes-



ARGAZKIA: N. BIZKAI

Ihartutako hiru izeiak botatzen, Izaieta inguruan.



ARGAZKIA: E. ASTIBIA

Plazak bete kartzelak hustutzeko Lip-duba grabatu dute

Herrirak antolatuta, lipdub bat grabatu zen eta ondoren argazkia atera zuten guztiek maiatzaren 18an, euskal preso eta iheslariak etxeratzeko aldarriarekin, plazan. Jende asko azaldu zen parte hartzera eta grabaketaren ondoren pin-txoak dastatu ahal izan ziren. *Lainoa nahinora doa, baina gu herrira goaz.*

te Clara Iago, Karra Elejalde, Carmen Machi... Borja Kobeagaren gidioarekin. Komedia bat izanen omen da. Aurreko asteetan ibili dira alde zaharreko kaleak eta hainbat etxe begiratzen, dekoratu bila. Ekainean izanen da errodajea eta gutxienez bi edo hiru aste egingen dute Leitzan. Ondoren Getaria eta Zarautzera ere joatekoak dira.

Emakumeak bustitzen dira

CRANA Fundazioak Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin lankidetzan, *Emakumeak busti egiten dira* proiektua jarri nahi du martxan. Eskualdeko emakumezkoak eta ibaia lotzen dituen proiektu erakargarria aurkeztu dute, emakumeak ibaiarekin edo uraren kudeaketarekin izan duen harremanean eta horren inguruan sortu izan diren lanak, esperientziak, bizipenak ezagutzeko, elkarrekin partekatuzko eta ikustarazteko. Proiektua gauzatzeko lau tailer egingo dira, eta landutakoa 2014. urteko egu-

tegi batean plazaratuko da urte bukaeran.

Lehenengo tailerrean genero harremanak eta horrek uraren kudeaketarekin duen harremana landuko da, eta aldi berean egutegiaren eraketa prozesuarekin hasiko dira.

Bigarrena idazkeraren ingurukoa izango da, eta partaideek egutegian azalduko diren idatziak landuko dituzte.

Hirugarren tailerrean, argazkiak eta hainbat testu landuko dira eta zirriborro bat prestatuko da, ondoren maketatuko dena.

Laugarren tailerrean, hirugarrenean landutakoa aurkeztuko da. Bai testuak eta baita argazkiak ere partaideen esku egongo dira.

Lehenengo tailerra ekainaren 5ean, asteazkena, arratsaldeko 6etan egingen da, udaltxean. Ondorengoak taldearen arabera zehaztuko dira, bai datak eta baita ordutegiak ere.

V. Sagardo Eguna

Bosgarren aldiz antolatuta dute Sagardo Eguna. Ekainaren 7an arratsaldeko 8etan sa-

gadoaren historia azalduko du Jakoba Rekonok Aurrerako goiko aretoan. Ekainaren 8an, berriz, arratsaldeko 7etan, herriko plaza, sagadozaleek beteko zaigu, 20 sagardotegik eskainiko duten aurtengo uztaren emaitzak dastatzeko. Urtetik urtera gorantz doan pesta dugu hau eta honekin aurtengo XXXVI. Kultur Aroa, bukatuko da.

EH Mendi Erronka

Ekainaren 1ean izanen da Euskal Herriko Mendi Erronka, Esaitek antolatuta. Mendi lasterketa gogorra eta aurtentzat pentsatua da, 64 kmko ibilbidea osatu behar baitute, 3.500 metroko desnibelarekin. Dagoeneko 545 kirolarik baino gehiago eman dute izena. Bezperan Alex Txikon alpinistaren Himalayako azken bidaiaren aurkezpena izanen da zinean 20:30ean, aurretik dorsalak banatuko dira. Lasterketa larunbatean goizeko 5etan hasiko da. 200 laguntzaile ariko dira lanean dena ongi atera dadin.

GIZARTEA → AUZOLANEAN TXUKUNDU DA ZUBIA

San Migel zubiko guduaren 200. urteurrena girotzen hasi dira Beran

Herriko ikasleek zubiaren historiaren berri izan dute

TTIPI-TTAPA

Elkar laguntzeko eta lan moldeak aldatzeko garaiak dira, arazoak banatzeko, baina baita pozak partitzeko eta elkartzeko garaiak ere. Beran, San Migel Zubiaren Lagunak eta Udalak, elkarlanean

zenbait lan egiten ari dira. 2011ko irailean bildu zen San Migel zubiaren egoeraz kezkatutako taldetxo bat. Lanari ekin eta ondare honen zaharberitze eta berreskuratze lanean hasi zire burubelarri. 1813ko guduaren lekuko eta protagonista izan zen zubia eta aurten 200 urte beteko dira gertae-ra hartaz.

Azken hilabeteetan bertatik pasatu denak ikusi izanen du lanen bilakaera. Hasieran gutti



UTZITAKO ARGAZKIA

Auzolanean txukundu ondotik, itxura ederra hartu du San Migel zubiak.

batzuk ziren, baina gero eta boluntario gehiago bildu dira, auzolan taldea egin arte. Zubiaren zaharberitzea, bortziritar guziek goza dezaketen errealitatea da dagoeneko.

2013an, bigarren mendeurrenaren urte-

an, hainbat kultur ekitaldi prestatzen ari dira, zubian gertatutako az informatzeko eta bizi-lagunengan izan zuen eragina ezagutzeko. Gaugerero, Berako ikas-tetxetako ikasleek jaso dute San Migel Zubiaren Lagunak elkarteko

kide baten bisita eta zubiaren historiaren berri izan dute.

Goitiko argazkian ageri da zubia nola gelditu den auzolanaren ondotik eta hemendik aitzinera eginen diren ekitaldien berri ere ematen dugu pixkanaka.

CEDERNA-GARALUR → LEKUNBERRIN EKAINEAN

Nekazaritza ekologikoa lantzeko hastapen ikastaroa emanen da

TTIPI-TTAPA

Nekazaritza ekologikoa lantzeko hastapen ikastaroa antolatu du Cederna-Garalurrek Lekunberrin. Ekainaren 7, 8, 14 eta 15ean eskainiko da, ostiraletan 16:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Arlo teorikoa Lekunberriko udaletxean ematen da eta arlo praktikoa udal lursail batean.

Nekazaritza ekologikoaren printzipioak lantzen hastea da helburua, bai arlo teorikoan, baita arlo praktikoko ere, ikasleak, ikastaroa bukatuta, baratze ekolo-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arlo teorikoa eta arlo praktikoa landuko dira ikastaroan.

giko bat landu ahal izan dezan. Publiko osoari eta bereziki baratze ekologikoa lantzen hasi nahi duten, edo beren ohiko baratzea baratze ekologiko bihurtu nahi duten guztiei bideratuta. Besteak beste lurra

aztertzea, lurra prestatzea, haziak eta landaretxoak, hazi eta landare ekologikoak lortzea, laboreak elkartzea, laboreak txandakatzea, zure baratzea diseinatzea, hesidurak, ongarrirritzeak, izurrien eta gai-

zuen kontrola, ereitea edo landatzea eta laboreen jarraipena landuko dituzte.

Izen emateko 696 539 810 telefonora deitu edo igastaminza@cederna.es helbide elektronikora idatzi behar da.



GOIZUETA

KIROLA → LAUGARREN EDIZIOA

Iskibi BTT zeharkaldia laugarren aldiz egingen da igandean

34 eta 25 kilometroko ibilbideak aukeran

TTIPI-TTAPA

Iskibi kanpinak antolatzen duen BTT zeharkaldiaren laugarren edizioa egingen da ekainaren 2an, igandean. Izen ematea 09:00etan hasiko da eta irteera 10:00etan izango da. Partehartzeko, Internet bidez eman daiteke izena www.kirolprobak.com webgunean, 12 euro ordainduta eta bestela, egunean bertan, 16 eu-

ro ordainduta. Bi zirkuitu egongo dira aukeran: luzeenak 34 kilometro izango ditu eta laburrak, berriz, 25km, Iskibitik abiatu eta bertan helmugaratuz. Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Partehartzaile guztiak aseguratuak egongo dira, bi hornidura gune egongo dira bidean eta bukarran, luntxa, opari zozketa, dutxak eta txirrin-dak garbitzeko aukera ere izango da. Proba egunerako 12 euroko menua prestatu dute Iskibi kanpinean, bertan bazkaldu nahi dutenentzat.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Goizueta ezagutzen laugarren mendi buelta

Urtero bezala, aurtien ere, baseritarrak San Isidro ospatu zuten, Horretarako Oxe-guarda jatetxean bildu ziren afaltzera 25 bat lagun.

Kantu poteoa Umore Ona abesbatzarekin

Ostiral honetan, maiatzak 31, Umore Ona abesbatzak kantu-poteoa egingo du herriko tabernetan. Hasiera, 19:30ean izanen da Amaia kafetegitik.

Ekainaren 8an, berriz, Donostiako Kursalera doa abesbatza, arraunlarien San Migel

Ligaren aurkezpena dela eta, Imanol Kamio zuzendariakin, Hernaniko Kantuz, Ereñozuko Ozenki eta Trintxerpeko Abesbatzarekin batera, ACTko Ereserkia abes-teko, besteak beste.

Ekainaren 22an Hernanira doa Umore Ona abesbatza Egunsentia edo Aurorak kantatzerara, bertako Kantuz eta Ereñozuko Ozenki abesbatzarekin batera.

Kamioia amildua

Maiatzaren 22an istripu larria gertatu zen Hernanirako bidean, kanpin inguruan. Kamioa errepidetik atera eta 20 metroko eroria izan zuen. Burgoseko gidariak hanka eta bertze zenbait hezur hautsi zituen eta herriko suhiltzaile boluntarioek atera behar izan zuten eta Donostiko ospitale-ara eraman.

ARANO

GIZARTEA → UDABERRI USAINAK MUGITUAK

Gero eta bisitari gehiago hartzen ditu herriak

Ainhoa ANSA

Udaberi eta uda usainak mendizale eta bazterhauen maitaleak mugitzen ditu eta Aranon poliki poliki nabaritzen da bisitari hauen emaria igo dela.

Pasa den apirilaren 25ean Errenteriko Telleri ikastetxeko DBHko bigarren mailako ikasle batzuk ederki gozatu zuten. Txautxikiko Enrike Huizi irakasleak aipatu

digenez, «autobusak Gutzikin utzi gintuen. Handik, Bekerritik barrena herrira joan ginen. Gero, Luxanbi eta Sotsotik Surora joan, eta handik Juan Donostira. Aldapatxoa igo eta bertan hamaietakoa egin genuen patxada ederrean. Mendiz mendi Oraunera ailegatu, Burniñera joan, han egonaldi bat egin genuen eta Burniñetik Arano



ARGAZKIA: ENRIKE HUIZI

Errenteriko Telleri ikastetxeko ikasleak, Aranon izan ziren.

herrira joan ginen. Bertan bazkaldu lasai aski eta Gutzikira joan ginen autobusa hartzera».

Herritarrak ere ibilaldi bat egitekotan dira. Latxeko erreka bazterretik atera eta Euntzin-

go harria izanen dute jomuga egun hauetakoren batean, eguraldiak laguntzen badu.

KIROLA → ERRITMO GUZIENZAKO EGOKIA

Areso eta Goizueta arteko mendi ibilaldia antolatu dute ekainaren 8rako

Juana Mari SAIZAR

Araitz, Areso, Bete-lu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak eta Aresoko Udalak antolatuta, herritik Goizuetara bitarteko mendi ibilaldia egingo da ekainaren 8an. Aresoko plazatik goizeko 9:00etan abiatuta, Leitzaeran, Urepel eta Mandoegin barrena Goizuetara ailegatuko dira mendizaleak eta bertan bazkaria izanen dute esperoan. Guzira, 18 kilometro luze eta 500 metroko desnibela duen ibilbidea osatuko dute. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, erritmo guzientzako egokia da ibilbidea eta mendian ohitura handirik ez dutenek edo haurrek ere egiteko modukoa. Hori bai, 14 urtetik beherakoak arduradun batekin joan beharko

dute. Bueltarako autobusa ere izango da. Izen ematea 13 euro kostako da herriko bizilagunentzat, 15 euro besteentzat eta 5 euro haurrentzat. Udaletxean (948 510327 edo areso.koudala@ibercom.com)

Lehen jaunartzea

Herriko zazpi neska mutikok egin zuten lehen jaunartzea maiatzaren 19an. Meza oso polita izan zen, irakurri eta bertsoak ere kantatu zizkiguten gazte txoek eta ondoren baikoitzak familiarekin bazkari eder bat eginez amaitu zuen eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA


Jaunartzea egin dutenak.



ARGAZKIA: ANA GONI

Indonesiako bizimoduaren berri Agurtzane Belauntzararekin

Eskolako haurrek bisita izan zuten pasa den astean, Berrobiko Agurtzane Belauntzaran etorri baitzen. Hau munduko txoko askotan ibilia da eta oraingo bisitan Indonesian Bajao etniako bizimodua eta bere esperientzia kontatzera etorri zen. Bertan bost hilabete eman ditu eta argazki erakustaldia eta bideoa ere ikusi ahal izan zituzten haurrek. Lehen Hezkuntzan, gainera, kultura ezberdinak lantzen aritu dira eta oso gustora egon ziren guztiak Agurtzanearekin.



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

Herrirak antolatutako Plazak bete ekimena egin zen hilaren 18an

Herrira-k antolatutako Plazak Bete ekimena egin zen maiatzaren 18an Euskal Herriko herrietan. Areson ere izan zen eta eguerdian egin zen ekitaldia, eta eguerdialdi txarra zela eta plazan beharrezko trinketean elkartu zen jendea.

Maimur

ttipi txartela

%10eko
DESKONTUA
oparitzeko artikuluetan

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabilioia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxa: 948 631 550

BAZTAN

BISITA GIDATUAK → LEHENENGOA EKAINAREN 1EAN

Literaturan oinarrituta Elizondoko txokoak ezagutzeko aukera

'Zaindari ikusezina' eleberriko inguruak bisitatuz

TTIPI-TTAPA

Buruan irudikatutako paisaiak bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dute *Zaindari ikusezina* eleberriarren irakurleek. Ekainaren 1etik aitzinera, bisita gidatuak egiteko aukera izanen dutelako Dolores Redondo idazleak deskribatzen dituen paisaietan barna. Juan Mari Ondikol eta Beatriz Ruiz Larrinaga elizondarren eskutik egingen dute ibilbidea. Argazkilaria bata, turismoan lizentziatua bestea, biak izanen dituzte gidari fikziotik errealitateko jautzia egiterakoan.

Diotenez, asko izan dira Elizondora hurbildu eta eleberrian irakurritako lekuen inguruan galdezka aritu direnak. Interes horri erantzuna emateko asmotan jarri dute abian ekimena eta bide batez, «krisi garaian bailara biziberritzeko balio» dezaketela uste dute. Alde horretatik, herriko hainbat merkatarien prestutasuna azpimarratu dute. Besteak beste, Malkorragozotegian bisita txartela erakusten dutenei Txantxigorri gozoa eta txokolate beltza dastatzeko aukera emanen diete eta Txokoto eta Antxitonean ere bisitariari eskaintza bereziren bat egingen diete.

Ekainaren 1ean hasi eta larunbatero (29an izan ezik) egonen da bi-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Juan Mari Ondikol eta Beatriz Ruiz Larrinagak egingen dituzte gidari lanak.

sita gidatuak egiteko aukera. Uztaila eta abuztuan, aste tartean eskainiko dituzte bisitak, baina antolatzaileek adierazi dutenez, eskariaren arabera zehazten joanen dira noiz izanen diren.

BI IBILBIDE

Bisitariak bi ibilaldiren artean aukeratu dezakete. Bi ordu eta laurdeneko iraupena duena bata; hilerria, Baztan errekararen ingurua, Victorren baserria, zubia... hurbiletik ezagutzeko

aukera emanen diena. Ibilbide laburragoa egin nahi dutenek berriz, ordu bete inguruko bidea eginaz, Jaime Urrutia kalea, Txokoto, eliza, komisaldegia... ezagutuko dituzte. Turistek ikusi eta ikasteko aukera ere izanen dutela azaldu dute antolatzaileek, «eleberrian oinarritutako gidoi bat osatu dugu, baina horretaz gain, Elizondoko historia eta kontakizun mitologikoen inguruan eresolastuko dugu, Mari, Bajasajana...».

IZEN-EMATEA

Izen-ematea *visitaelduardianinvisible@hotmail.com* helbidera idatzita edo 670 336232 telefonora deituta egin liteke. Ibilbide luzea egin nahi dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta ordubeteko bidea egin nahi dutenek berriz 10 euro. Ikasleek, adinekoak eta langabetuek berriz, 7 euro ordaindu beharko dituzte. Bisitak euskaraz, gaztekeraz, ingelesez edo frantsesez egiteko aukera dago.

BALLEKO ETXEA → MAIATZAREN 3AN ERABAKI ZUEN

UEMAAn sartuko da Baztango Udala

TTIPI-TTAPA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea erabaki du. Maiatzaren 3an egindako udalbatzan, Bildu, Baztango Ezkerra eta Nabai-ko ordezkarien aldeko botoekin eta UPNren kontrakekin hartu zuten erabakia. Hartutako erabakia ofizialki UEMAk ekainean egingo duen batzar nagusian onartu ondotik gauzatuko bada ere, ia

erran daiteke Baztan UEMAko partaide dela.

Baztan UEMAAn sartuko den 71. udalerrria izango da, modu horretan, UEMAren lurgunea zabaltzera dator, eta hori berri ona da euskarentzat.

Lur-gune euskalduneko beste herriekin batera, Baztango Udalak euskararen aldeko apustu argia egin nahi du. Herriko errealitate soziolingüistikoari eran-

tzungo dion hizkuntz politika aurrerakoia garatuz, Baztan herri euskalduna izan dadin bermatu eta euskararen arnas-gunea babesten jarraitzeko. Bide horretan, udalaren jarduna euskaldundu nahi da, honela herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzeko baliabideak eskuratuz. Finean, hizkuntzari dagokionean ere aitzindari izan nahi du Udalak.

GIZARTEA

Ernesto Prat errugabetzat jo dute

TTIPI-TTAPA

Ernesto Prat Urzainki errugabetzat jo du Espainiako Auzitegi Nazionalak. Elizondarrari Ekineko kide izatea leporatu izan dio Fiskalak eta horregatik izan zen atxilotua eta epaitua.

Urruñan bizitza publikoa egiten zuen Ernestok baina 2012ko urtarrilaren 25ean Frantziako poliziak Urruñan atxilotu eta Grande Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen eskaera onartuz, 2012ko otsailean espainiaratu zuten. Frantziako eta Espainiako estatuetako kartzeletan hiru hilabete pasatu ondotik, 2012ko apirilean espetxetik fidantza ordainduta atera zen, epaiketa noiz egingen zain. Apirilaren 9an egin zioten epaiketa Entzutegi Nazionalan. Gerroztik epaiaren zain egon da eta maiatz hasieran eman zuten errugabetzat. Baztanen hainbat mobilizazio egin izan dira Ernesto Prati elkartasuna adierazteko. Tartean, apirilaren 7an Elizondon manifestazioa egin zen eta 500 bat lagun bildu ziren.

UDALA → DEDIKAZIOAN ALDAKETA

Hautetsien soldataren berri eman du Udalak

6.600 euroko hazkundera izanen du aurten sail honek

TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeak 2013ko aurrekontuak onartu ditu eta udal hautetsien soldatetan aurten izanen den aldaketa zuzenean jakinarazi nahi izan du, «jendartean dagoen sentsibilitate berezia kontuan hartuz eta gaizki ulertuak eta erabilerak maltzurak saihesteko argigarria izanen delakoan».

Udal gobernari dagokionez orain artio Garbiñe Elizegi alkateak %80 liberazioa zuen, Mikel Ortega alkateordeak %100ekoa eta Jon Elizetxe zinegotziak %50ekoa. Bertze zinegotzi guztiek asistentziaren arabera dietak kobratzen dituzte, hilabetero 600 euro gehienez.

Jon Elizetxe zinegotziaren lana komunalen kudeaketa, Batzar Na-

gusiko txostenen prestateta eta nekazaritza, ingurugiro eta mendi lanak dira. Baztanen hedapena kontuan hartuz, komunalen garrantzia eta nekazaritzaren pisua egiten duen lana ez dator bat orain artio de-dikazioarekin. Horrez gain, joan den urria arte Jon Elizetxe langabeziaren zati bat kobratzen egon da, baino hau bukatu egin zitzaionez, aurten bere liberazioa %80rat iganen da. Orain artio 750 euro jasotzen bazituen hilabetero 14 ordainetan, hemendik aitzinera 1.000 euroko 14 ordain jasoko ditu. Horrela soldata eta gizarte segurantzako ekarpenak kontuan hartuta, udalak, udal hautetsien sarien ordainketan 6.600 euroko hazkundera izanen du.

Gainerako hautetsi liberatuen ordainek lehengo moduan segituko dute, Garbiñe Elizegi alkateak 1.300 euroko 14 ordain eta Mikel Ortegak 1.500 euroko 14 ordain.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Saihesbideko sarbidea irekitzearen alde agertu da Elizondo

N-121-B errepideko saihesbidean Elizondorako sarbidea irekitzeko edo itxia mantentzeko boza eman behar zuten maiatzaren 19an. 511 herritarrek parte hartu zuten kontsultan eta horietatik 284k eman zuten irekitzearen aldeko boza, 224k kontrako, 2 botu txuri izan ziren eta 1 baliorik gabekoa. Behin emaitzak ikusita, sarbideko harriak kendu, abiadura murrizteko koxkak paratu eta karrika bat zolaberrituko dute. Kamionendako debekua izanen du eta ahalik eta arreta gehien jartzea eskatuko dute Sustapen Departamentutik.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

EHPalestina Eguna eurpean baina giro ederrean joan zen

Eguraldiak ez zuen batere lagundu baina halere giro ederra izan zen Palestina-rekin elkartasun egunean. Argazkian, Palestinako dantzak.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

ORBELA
SENDERISMOA ALBERGATZA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

kulki
zure herriko jaietan
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

POTTOKI
ttipi txartela
%5eko
DESKONTUA
oparitzeko
artikulu txikietan

SENPERE

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 12AN EGIN ZEN

Herri Urratseko irabaziekin Kanboko Xalbador ikastegia berritu eta haundituko dute

30.000 lagun bildu dira aurten aintzira inguruan

Franck DOLOSOR

Elkartasunaren uholdearen zain egon dira Ipar Euskal Herriko ikastolak eta aurten ere helburuak bete dituzte gure aintziraren inguruan hogoita hamargarren aldikoz ospatu den Herri Urrats bestaren kariatat. Aurten ere ehunka laguntzailek dena prestatu zuten ongi etorri atseginena egiteko Euskal Herri osotik etorri diren euskaltzale guzietari. Gehienen ustez usaian baino jende guttiagok parte hartu zuen aurtengo bestan bainan halere hor zirenak biziki gogotsu ziren. 30.000 herritar ingururen ondoren kolore guzietako hautetsiek parte hartu zuten Seaskaren ekitaldi ofizialean, lehen aldikoz Lapurdiko diputatu bat zelarik hor Sylviane Alaux sozialista.

Seaskak dituen zailtasunak eta arrangurak jakinarazi eta, berri onik ere izan zen Miarritzen zabalduko duen lizeo berria konparazione. Miarritzeko herriko etxeak lurra eskaini du eta Akitaniako gobernua 7.700.000 euroko laguntza eman beharra

du. Martin Garitano Gipuzkoako aldun nagusiak ere parte hartu zuen ekitaldian elkartasuna eta auzolana beharrezkoak ikusten baititu. Gipuzkoako aldundiak 200.000 euro emanen dizkio Seaskari hiru urtez segidan. Bere aldetik, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritza berriko Kultura eta Hezkuntza sailburuak gogoratu zuen berriki 400.000 euroko laguntza eman diola Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoari. Uriarteren erranetan elkarlarnak segituko du Seaska eta Gasteizko gobernuaren artean eta ondoko egunetan aztertuiko dute nola gauzatuiko den xuxen.

GERMAIN EZPONDA ETA CHRISTINE BESSONART

Christine Bessonart andere auzapezak Germain Ezponda Senperereko auzapez ohia eskertu zuen bere garaian ospatu baitzen lehen Herri Urrats. Erdaraz, Ezpondak azpimarratu zuen orduan jende eta bereziki hautetsi ainitz guttiago bildu zela. 1984ko martxoan hautatua izan zen auzapez eta apirilean berean ikastolako lagunek Herri Urrats maiatzeko bigarren igandean muntatzeko baimena galdetu zioten. 500 lagunentzat



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Herri Urratseko irudi batzuk eta Germain Ezponda auzapez ohia solasean.

pentsatua zen bestak hamar aldiz jende gehiago bildu zuen. Dena den, Ezpondaren ustez Herri Urratsek adibide ona eman du beti ez bai-

ta sekulan arazorik gertatu. Bestaren eta ikastolen sortzaileen lan jarrakia goraiatu zuen gogoratuz aintziraren sortzeak sufrimendua

ekarri zuela Senpererat. Herri Urratsi esker Ortzango erreka euskal arima berreskuratua due-la ikusteaz pozik dago Germain Ezponda.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☛ Langile autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bidegarrtasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → URDAZUBITIK ZUGARRAMURDIRA IBILALDIA EGINEN DA POTTOKA BIDETIK

Xareta Egunaren bigarren edizioa herrian ospatuko da larunbatean

Pottoka urdin baten irudia duten lepoko-mokanes pullit batzuk ere prestatu dira

Margari eta Koro

Ekainaren 1ean ospatuko den Xareta Eguneko xehetasun gehiago igorri dazkigute. Azketan eginen den bazkarirako (zikiroa) txartelak lau herrietako ostatueta jarri dira salgai (25 eurotan), bazkariaren ondotik kantu-liburuxka bat banatuko da, Joxe Angel akordiolariak lagundurik, kantatzen aritzeko.

Pottoka urdin baten irudia duten lepoko-mokanes pullit batzuk ere prestatu dira. Hauek ere ostatueta salgai dire, 3 eurotan.

Goizeko 8:30ean abiatuko den ibilaldia, Zugarramurditik Urdazubirainokoan trankila izanen dela ere errandakute, baina Urdazubitik Zugarramurdirako



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Tailandiako telebistako kameralariak eta kazetariak, Sorginen Museoa.

itzulian, behar bada bidean sorginak eta halakoak agertzeko arriskua omen da. Eguerdian Xaretako dantzari tikiak emanaldia eskainiko dute plazan.

Gero jokatu den pala partidaren arituko direnak hauek dire: Alfredo-Pako, eta Manu-Txiua eta segidan, mu-

sikaz girotutako aperitifan izanen da plazan, zikiroa baino lehen.

Tailandiako telebista bixitan

Gure herriaren izek Asia aldera salto eginen du laister: maiatzaren 9 eta 10ean Tailandiako telebista pu-

blikoko kazetari batzuk egon ziren gure artean, grabaketa bat eginen. Uztailan Tailandiarrek bere telebistetan gure herriaren berri izanen dute.

Inkizioari buruzko programa bat prestatzen ari dira, eta Sevilla eta Kordoban egon ondotik Zugarramurdira

etorri ziren. Gero Barzelona eta Toledon segitzeko intentziona zuten. Museoan idatzita utzi zuten dedikatorian «aunitz ikasi zutela» zioten, eta «Sorginen Museoan, nahiz eta fisikoki txikia izan, haundia dela».

Piriniotako pertsonai mitologikoen erakusketa

Maiatza hilabetearen «Pirene» erakusketa egon da museoan. Pirineoko lurraldetako pertsonai mitologikoak ziren ikusgai, bai gure euskaldunak (Tártalo, Herensuge, Prakagorri...), baita Pirinioko bertze tokietakoak ere: Requesenseko zigantea, Alojas, Gerión...

Erakusketa ibiltaria dugu hau, Huescako Boltaña herritik etorria da, hemendik Astigarragara eramaten dute, eta handik Gironara.

Hilabete huntan, denetara mila bat lagunek ikusi dute.

Ford
ZALAIN MOTOR
ttipi txartela
%5^{eko}
DESKONTUA
errekambioetan

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA
Egunero irekia
09:00etatik
02:30era
Dantxarinetatik
2 km.tara
PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA
T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

SARA

OSPAKIZUNAK → ELKARTASUN BESTA

Ekainaren 2an ospatuko da Kermeza

Egun guzian ostatua izanen da plazan, pastizak salgai, selauru hustea eta xantzaren errotan jostatzen ahalko da

Joana GUERENDIAIN

Ekainaren 2an ospatuko da Kermeza Saran. Meza nagusia goizeko 10etan emana izanen da, ondotik 11etan pilota partida bat jokatuko da frontoinean. 11:30etik goiti Lur Berri gelan, eramateko janari posikak salduko dira. Bazkaria 12:30etik

goiti zerbitzatua izanen da, helduentzat menua 17 eurotan da eta haurrentzat 8 eurotan.

Egun guzian plazan, ostatu bat izanen da, pastizak erosten ahalko dira, selauru huste bat eginen da eta xantzaren errotan jostatzen ahalko da. Arratsaldeko 4:30ean Joko Garbi pilota partida bat jokatuko da.

Brasil gaualdia

Ekainaren 8an, larunbata, Le Pullman jantetxeak Brasil gaualdi bat antolatzen du. Arratsaldeko 6etatik goiti hasiko da Brasileko aperi-tifa batekin, ondotik afaria zerbitzatua izanen da 23 eurotan: sartze mahaia, idiki chu-



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Usopop

Usopop en 4.edizioak arrakasta polita ezagutu du. Aurten festibala Agorrekan instalatu da bere lehen parte aurkezteko, eta antolatzaileen pozerako 200 pertsona hurbildu ziren Unama eta Kid Rock entzuteko. Ondotik gaualdiak lur berri segitu zuen, hor ere jende multxo polita bazen, 250 inguru, gela betea zen. Antolatzaileak biziki kontent dira, 5. Edizio batentzat ez da oino deus finkaturik baina ideiak badira!

rrascoa patatak eta saltsarekin eta deserta. Ondotik ikusgarri bat emana izanen da.

Sartzeko auto batek joan jinak eginen ditu gaueko 11etatik goizeko 2ak arte, urririk da. Erreserbatzeko:

05.59.54.20.11

Zazpiak bat-en ikasturte bukaera

Dantza taldeko haurrek urte bukaerako ikusgarria aurkeztuko dute ekainaren 14an. Ikusgarria iluntzean emana izanen da, 7etan, denboraren arabera ikusgarria plazan edo

Lur Berri gelan eginen da.

Kontzertua

Ekainaren 13an, ortzegun gauarekin, 9:30ean Mundo nuevo, Andesetako musika taldeak kontzertu bat emanen du elizan.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)


- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ♥ ...

Bidasoa. 12 • BERA • 948 631 425



EZKONTZAK

Javier Otaño Jaunarena eta **Mari Jose Albistur Huizi**, Urnieta eta Goizuetakoa, maiatzaren 6an.
Jose Javier Ubiria Andueza eta **Olga Maritza Garcia Correa**, Lesakakoa eta Santo Domingo de los Colorados (Ekuador), maiatzaren 11n Lesakan.
Xabier Aranguren Vicente eta **Miren Edurne Irigoien Ubiria**, Igantzikoak, maiatzaren 11n.
German Dimitri Contreras Fuentes eta **Itziar Martiarena Aldabe**, Txile eta Irungoa, Sunbillan, maiatzaren 18an.
Philippe Goienetxe eta **Maryline Duviou**, Sarakoak, maiatzaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.




kukuka
KALOR ARROPA BERRA

kukuka-n bainujantzi bat erosiz gero

Kimetz
Belardenda-n %15eko deskontua eguzkitako kremari

Zazpigerutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252



SORTZEAK

Maialen Urtxegi Bidegain, NARBARTEKOKA, maiatzaren 17an.
Miren Iraitz Zubieta Iribarren, Etxalarkoa, maiatzaren 11n.
Ekaitz Madariaga Alberdi, Arantzakoa, maiatzaren 14an.
Lorena Laura Pradère, Sarakoa, maiatzaren 5ean.
Naroa Elizalde Larretxea, Iturengoa, maiatzaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Belen
Loradenda Floristeria

AUKERA ZABALA LORETAN

Intzakardi, 8 • DONEZTEBE
T. 948 451 758

HERIOTZAK

Adela Iturria Galarza, Elizondokoa, maiatzaren 7an, 82 urte.
Jose Manuel Bidegain Elizalde, Lekarozkoa, maiatzaren 7an.
Asuncion Iturria Telletxea, Elizondokoa, maiatzaren 8an, 56 urte.
Mirentxu Irigoien Irigarai, Arizkungoa, maiatzaren 9an, 77 urte.
Jose Ignacio Telletxea Lertxundi, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 9an.
Javier Apeztegia Gortari, Zugarramurdikoa, maiatzaren 12an, 76 urte.
Maria Candelaria Erramuzpe Osés, Erratzukoa, maiatzaren 12an, 89 urte.
Salutaria Jorajuria Larramendi, NARBARTEKOKA, maiatzaren 13an, 90 urte.
Joaquin Elizalde Auzoberria, Lesakakoa, maiatzaren 17an, 87 urte.
Maria Asunción Olagarai Agerreberre, Urdazubikoa, maiatzaren 17an, 91 urte.
Bernardino Urrutia Etxeberria, Iruretakoa, maiatzaren 20an, 75 urte.
Sebastian Anzizar, Sarakoa, maiatzaren 13an, 89 urte.



Asun ITURRIA
Elizondon, 2013ko maiatzaren 8an hil zen,
56 urte zituela



Arima kantuz alaitzen dugu eta momentu on horiek zurekin pasa genituen.

EGUZKILOREKO KIDEAK



Sebastian ANZIZAR
Saran, 2013ko maiatzaren 13an hil zen,
89 urte zituela

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

ARANBURU FAMILIA



Mikel IRIGOIEN ARBURUA
2013ko maiatzaren 21ean hil zen,
50 urte zituela

Bapatean joan zara baina gurekin zaitugu.

ETXALARKO LEHENGUSUAK

Aritz Juanenea Saldiasako Danbolineako semea da. 20 urte eginak ditu (1992ko urriaren 2an jaioa zen) eta joan den urtera arte esku pilotan aritu zen jotasu. Baina Migel

Mari Urrutia herritarraren aholkua segituz erremonteko saskia probatu zuen joan den urteko martxoan. Urtebete beranduago, maiatzaren 25ean debuta egin du profesio-

naletan Galarretan. Berekin batera, Iban Larrañaga azkoitiarrak eta Aizarnazabalgo Beñat Segurolak ere debuta egin dute Oriamendi 2010 enpresaren eskutik.

Aritz JUANENEA | Saldiasako erremontelari profesional berria

«Eskuz nahiz erremontean aurreko koadroetako xaltxa gustatzen zait»

Aitor AROTZENA | SALDIAS

Esku pilotan ongi moldatzen zinen, baina erremontean egin duzu profesionaletan debuta...

Erremontean joan den urteko martxoan hasi nintzen. Esku pilotan, 6 urtetatik hasi eta 19 urte arte aritua naiz, Txarutan, Oberenan eta Errekan, eta irabaziak nituen hainbat txapel. Baina ez nuen etorkizunik ikusten eta Migel Mari Urrutia herritarrak, Mexikora joan aurretik aipatu zidan erremontea probatzeko eta holaxe hasi nintzen. Bera izan nuen maisu Euskalen egin genituen lehenbiziko hiru entrenamenduetan.

Urtebete egin duzu erremontelari afizionatu bezala, baina palmares polita osatu duzu...

Erremontean afizionatutan egin dudana urte honetan ere txapel batzuk irabaziak ditut, azkenekoa Euskal Herrikoa, Iñigo Zubeldia herritarrarekin batera eta nerekin batera debuta-tu duten Segurola eta Larrañaga kontrario genituela. Aurretik, iazko GRAVNe-koa, Noaingo Hiru Kirolekoa eta Nafarroakoa ere irabazi nituen. Aldiz, azkeneko GRAVNe-ko txapelketa ez nuen irabazterik lortu.



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Profesionaletan debuta egin berri duten Segurola, Larrañaga eta Aritz Juanenea.

Zer duzu gustokoa, goa, esku pilota edo erremontea?

Niri beti gehiago gustatu izan zait esku pilota eta oraindik ere gustokoago dut. Baina orokorrean, pilota modalitate guztiak gustoko ditut. Palan ere herriko festetan txapeldun atzera nintzen. Zesta-punta probatzea falta zait.

Espero zenuen hain abudo debutatzea?

Beti badira hobetzeko gauza asko, baina nahiko ongi hartu nuen erremontearen teknika eta espero nuen debutatzea, baina ez hain abudo..

Zein helbururekin hasten zara profesionaletan?

Pixkanaka partidak jo-

ESKUTIK ERREMONTERA

«Esku pilotan zabale-
tik txokora jokatzeko
da gehiago eta erre-
montean, berriz, txo-
kotik zabalera.
Hanken postura aldatu
behar dut eta denborarekin
hobetzea espero dut».

«Niri beti gehiago
gustatu izan zait
esku pilota eta orain-
dik ere gustokoago
dut. Baina, orokorrean,
pilota modalitate
guztiak gustoko ditut.
Palan ere herriko festetan
txapeldun atzera nintzen.
Zesta punta probatzea falta
zait orain».

katzea eta konfidantza hartzen joatea da lehenbiziko helburua. Partidak jokatzearen poderioz erremontea egitea espero dut eta gero, frontoiak erakutsiko du noraino ailegatzeko ahal naizena.

Zein ezaugarri dituzu erremontelari bezala eta zertan hobetu behar duzu?

Ni aurrelari petoa naiz eta aurreko koadroetako xaltxa hori gustatzen zait, eskuz nahiz erremontean. Eskuz boleazalea nintzen eta erremonteararekin ere tantoa bukatzea gustatzen zait, nahiz eta oraindik ez dudana erraztasun handirik. Nerekin debutatu duten horiek urteak darazkitez erremontean

eta pilota nahi duten tokira bidaltzen dute. Niri horixe falta zait, pentsatzen dudana lekuan pilotatu jartzea. Teknikoki asko hobetu beharra dut eta konfidantza falta zait. Kantxan galdu xamarra nabila oraindik eta mugitzen ikasi behar dut. Esku pilotan zabaletik txokora jokatzeko da eta erremontean txokotik zabalera gehiago jokatzeko da. Hanken postura aldatu behar dut eta denborarekin hobetzea espero dut. Tantoa bukatzen ikasi beharra dut. Defentsan aritzeko moldatzen naiz, fisikoki ongi eta kolpezu eta indarrez ongi moldatzen naiz, baina tantoa bukatzen ikasi beharra dut. **Baduzu erreduren bat erremontean? Zein da zure gogoko erremontelaria?** Gogokoa Migel Mari Urrutia izaten nuen, herrikoa zelako eta Mexikora joan zenean koadroko atzelaririk onena zen, oso pilotaria zen, dudarik gabe. Baina ni aurrelari aritzen naiz eta Koteto Ezkurra onen onenean ezagutu ez badut ere, oraindik ere ikaragarria da, erremontelari petoa. Oraingo koadroan Urriza iruditzen zait onena eta berekin asko identifikatzen naiz, berak bezala indarra badut, gorpuzkeran ere berdintsuak gara.

TXIRRINDULARITZA → MAIATZAREN 18AN EGIN ZEN

Iraitz Etxebarria nagusitu da Xabi Telletxearen omenezko Igantziko BTT jautsieran

Iñigo Yanci beratarra eta Oronoz-Mugairiko Iñaki Esarte Nafarroako txapeladun

TTIPI-TTAPA

Aitzineko bi urteetan bezala, aurten ere Iraitz Etxebarria bizkaitarra nagusitu da Xabi Telletxea zenaren omenez maiatzaren 18an egindako Igantziko BTT jautsiera probaren hirugarren edizioan. Nafarroako txapelketa ere Eus-

kadiko Irekirako baliagarria zen proba honetan erabaki zen.

Eguraldiak erabat baldintzatu zuen jautsiera, euriz leher eta haize handia baitzebilien. Horregatik, txirrindulariek hotz handia pasatu behar izan zuten eta ibilbidea erabiltzen zuten neurrian, lohi handia egin zen.

Lehenbiziko jautsieran 64 lagunek parte hartu zuten, baina bigarrenean bakarrik 47k, kategoria ezberdinetan ohorezko postuengatik lehiatzeko moduan zeudenak.

Emakumezkoen ar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Igantzioko BTT jautsiera txirrindularien podiuma.

SAILKAPEN OROKORRA		
1	Iraitz Etxebarria (sub23)	3:16.27
2	Daniel Olarra (junior)	3:26.15
3	Eric Portillo (sub23)	3:36.34
4	Martxel Oronoz (elite)	3:40.58
5	Txomin de Vega (elite)	3:42.33
6	Andoni Cabodevilla (sub23)	3:44.50
7	Benjamín Torre (sub23)	3:45.59
8	Andrés Marco (elite)	3:38.44
9	Ivan Blanco (master30)	3:49.51
10	Victor Saenz (master30)	3:54.95

tean Laia Barbero nagusitu zen (4:13.06); bigarren urteko junior mailan Barakaldoko Guillermo Cañas izan zen bizkorrena (3:59.72) eta elite kategorian Hondarribiko Martxel Oronoz nagusitu zen.

Nafarroako tituluei

dagokienez, elite kategorian sailkapen orokorrean hamekagarren izan zen Iñigo Yanci beratarra suertatu zen Nafarroako txapeladun elite mailan (3:55.54) eta Oronoz-Mugairiko Iñaki Esarte master 30 mailan (4:24.36)

ATLETISMOA → MAIATZAREN 11N

Fernando Etxegarai nagusitu da Urdazubiko Kontrabandisten lasterketan

TTIPI-TTAPA

Urdazubiko Kontrabandisten lasterketan, maiatzaren 11n, guzira 84 korrikalari atera ziren. Fernando Etxegarai beratarra erraz nagusitu zen, ordu bete, 8 minutu eta 50 segunduko denborarekin. Bigarren postuan bertze beratar bat sartu zen, Angelxo Aranibar, 4 minu-

tu eta 21 segundora (1:13:12) eta hirugarren postua François Champagnerentzat izan zen (1:14:01).

Emakumeen artean, lehen postua Nerea Amilibiak eskuratu zuen (1:24:24); Mainer Calleja izan zen bigarren (1:25:18) eta Idoia Maritxalar lesakarra hirugarren (1:30:38).



UTZITAKO ARGAZKIA

Partehartzaileak eta gizonezko nahiz emakumezkoen podiumak.

FLASH

Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak

Ekainaren 2an, igande goizeko 9:30etik aitzinera jokatu dira Elizondoko XXIII Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak. Hamar kategoriatan banatuak 95 bikote (190 pilotari) aritu dira txapelketa honetan. 250 partida baino gehiago jokatu dira martxo, apiril eta maiatzaren Irurita eta Elizondoko pilotalekutan. Lehenbiziko aldia da finalak Elizondon jokatzen direla.

Errekako mutiko infantilak kopan txapeladun

Eskubaloian, kopako finala Donezteben jokatzen zuten Errekako mutiko infantilek maiatzaren 18an eta garaipena lortu zuten etxean Burladaren kontra (34-27). Beraz, ligan azpitxapeladun eta kopan txapeladun izan dira mutikoak.

maiatzak 30 - ekainak 13

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Hitzaldiak



BEINTZA-LABAIEN | 2013.06.08

Jakoba Errekondoren hitzaldia Iturrondo elkartean

Landareen inguruan hainbertze dakien Jakoba Errekondo Beintza-Labaiengo Iturrondo elkartean izanen da ekainaren 8an. 11:00etan hitzaldia eskainiko du.

Ospakizunak



LEGASA | 2013.06.01

Bertizaranako Eguna ekainaren 1ean Legasan

Goizean hasita, egun osoan hainbat ekitaldi egingen dira Legasan, Bertizaranako Egunaren harira. Tartean, musika, mus txapelketa, kirola, otorduak...

Tailerrak



LEITZA | 2013.06.05

'Emakumeak busti egiten dira!' tailerrak

Eskualdeko emakumeek ibaiaren edo uraren kudeaketan izan duten harramenaz eta horren inguruan sortu diren lan eta esperientziez lau tailer udaletxean.

LEITZA

Mendia, kirola eta Abentura zinemaldia

Maiatzaren 28an eta 30ean Peritza Ostatuan, 20:00etan.

Kontzertuak

DONAMARIA

Mendi abesbatzaren kontzertua**Maiatzaren 31n**

Doneztebeko Mendi Abesbatza Donamariako Dorretxean (20:30).

ORONOZ-MUGAIRI

Mendi abesbatzaren kontzertua**Ekainaren 2an**

Mendi Abesbatzaren saioa elizan, 19:00etan.

SARA

Kontzertua elizan

Ekainaren 13an Mundo Nuevoren kontzertua elizan, 21:30etan.

BERA

Udako kontzertua

Ekainaren 5ean udako kontzertua, 17:30ean Kultur Etxean.

Ospakizunak

ERRATZU

Uholdeen**mendeurrenako besta**

Maiatzaren 31n, ekainaren 1 eta 2an uholdeen urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi.

ARANTZA

Eskolaren**mendeurrenako besta**

Ekainaren 8an Eskolak 100 urte bete dituela eta, egun osoko besta.

LEITZA

V. Sagardo Eguna

Ekainaren 8an V. Sagardo Eguna.

DONEZTEBE

Errekaren Eguna

Ekainaren 8an Erreka Kirol Elkartean eguna ospatuko da.

Erakusketak

LEITZA

'Emakume baserritarren begiradak'

Maiatzaren 20etik aurrera izen hori duen erakusketa udaletxean.

BERTIZ

Ziga eta Fernandezek argazki zaharrak

Ekainaren 30era arte Pedro Ziga eta Dorotea Fernandez azken jabe partikularren argazki zaharrak erakusketa, Natur Parkean.

Zer da zuretzat basoa?

Ekainaren 30era arte Zer da zuretzat basoa? margo eta argazki lehiaketako lanak ikusgai Natur Parkean.

Solasaldiak

BEINTZA-LABAIEN

Jakoba Errekondorekin solasean

Ekainaren 8an Jakoba Errekondoren hitzaldia egingen da Iturrondo elkartean, 11:00etan.

BERA

San Miguel zubiaren inguruko solasaldiak

Ekainaren 7an Gerren ondorioak biztanleria zibilaren artean historian

zehar Fernando Mendiolarekin, 19:30ean Beralandetan.

Ekainaren 14an *Efectos de las guerras en Navarra a lo largo del siglo XIX* Eduardo Martinez Lakaberekin, Beralandetan (19:30).

Ikastaroak

LEKUNBERRI

Nekazaritza ekologikoa lantzeko ikastaroa

Ekainaren 7, 8, 14 eta 15ean Nekazaritza ekologikoa lantzeko hastapen ikastaroa. Informazioa eta izen-

ematea: 696 539810/igastaminza@cederna.es. Azken eguna maiatzaren 30a.

LEITZA

'Emakumeak busti egiten dira!' tailerrak

Ekainaren 5ean emakumeek ibaiaren edo uraren kudeaketan izan duten eskuartzeaz tailerrak udaletxean.

BORTZIRIAK

Begiraleentzako ikastaroa

Ekainaren 15, 22 eta 29an begiraleentzako

PROPOSAMENA

ETXALAR

Gasna eta Artisau Feria ekainaren 2an

Aurten XXI. aldiz, Gasna eta Artisau Feria egingen da Etxalarren. 10:30ean artisau erakusketa irekiko dute, 12:15ean herriko trikitilariak emanaldia eskainiko dute, 13:30ean gasna lehiaketako sari banaketa egingen da eta 14:00etan herri bazkaria. Arratsaldean, 18:00etan, herriko dantzariak euren saioa eskainiko dute. Egitarau ederra XXI. edizioa borobiltzeko.



ZUGARRAMURDI

Xareta Eguna

Ekainaren 1ean

Xareta Eguna ospatuko da bigarren aldiz.

ETXALAR

Gasna Feria Eguna

Ekainaren 2an

Gasna Feria Eguna.

LEGASA

Bertizaranako Eguna

Ekainaren 1ean

Bertizaranako Eguna-harira, egun osoko besta Legasan.

SARA

Kermeza

Ekainaren 2an

Kermeza ospatuko da.

ETXALAR

Umore Ona eguna

Larraburuan

Ekainaren 9an

txiste kontalaria Larraburu elkartearen.

Mendi ateraldiak

LEITZA

EH Mendi Erronka

Ekainaren 1ean

EH Mendi Erronka, 60 kilometro eta 3.000 metroko desnibelarekin.

BAZTAN

Atarrabiara mendi irteera

irteera

Ekainaren 2an

Atarrabiara mendi ateraldia Baztango Mendigoizaleak taldearekin.

ITSASU

Hiru kasko mendi irteera

irteera

Ekainaren 22an

Bidarraitik Itsasura, Iparla, Irubelaskoa eta Artzamendi kaskoetan barrena. Informazio gehiago: www.hirukasko.org.

ARESO


Areso-Goizueta mendi ibilaldia

ibilaldia

Ekainaren 8an Aresotik Goizuetara irteera.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Inurrien hiztegia

MARIASUN LANDA

Pamiela, 2013

Helduentzako kontakizun laburrez osatutako liburua da Mariasun Landaren azken lana: *Inurrien hiztegia*. Inurriak dira liburuko ipuin guztien protagonista, eta haien arteko gorabeherak gizakien arteko gorabeheren metaforak dira, umorez eta ironiaz emanak. Ipuin guztiek hitz bat dute izenburu, eta alfabetikoki ordenatuta daude izenburuaren arabera. Gisa honetara, egileak berak liburuaren *Inurrietza* hitzatzean dioenez, «hiztegi ez den hiztegia» osatu du. Haur eta gazte literaturako 37 liburu ditu argitaratuak Landak, eta helduen literaturako bilduma batean liburu bakarra zuen argitaratua orain arte eta hura gaztelaniaz. *Inurrien Hiztegia*, beraz, jatorriz euskaraz helduen literaturako bilduma batean argitaratzen duen lehenbiziko liburua da. Landak errana da, «itxuraz irakurtzeko errazak diren testuak aurkituko dituela irakurleak liburuan», baina «ipuinak benetan ulertzeko gaitasun literarioa beharko duela irakurle horrek».

Musika



Deserriko kantak

EÑAUT ELORRIETA

Elkar, 2013

Deserriko kantak izenarekin estreinatu du Eñaut Elorrieta Ken Zazpi taldeko kantariak bakarkako ibilbidea irekitzen duen lehen diskoa. Olerki ugari sortu dituen gai unibertsal eta historiko batean (deserria) oinarrituta, Elorrietak bere konposizioak argitaratu ditu. Hitzetan oinarritu ditu kantak eta horretarako, poesiak eta poetak arakatu ditu: Joseba Sarrionandiaren hiru poema daude kanten artean: *Erbestearen definiziorako proposamenak*, *Geografia* eta *Besamotzaren besoa*. Horiekin batera, Gabriel Arestiren *Nire aitaren etxea*, *Jean Oliver Deserriko kontradantza*, Mario Benedettiren *Non dago nire herria*, Harkaitz Canoren *Azken baltsa*, eta Lander Garroren *Itzulera II* dira bertzeen testuetatik sorturiko kantak. Elorrietak berak bi kanta idatzi ditu: *Itzulera I* eta *Gaua*. Musikaren aldetik, gitarrak, bateria programatuak, teklatuak, pianoa, biola eta bibolina erabili ditu, hainbat musikariren laguntzaz: Ruben Caballero, Arkaitz Miner, Xabier Zeberio, Hasier Oleaga...

Internet



ALKEren webgunea berritua

LEITZAKULTURA.NET

Itxuraberritua gelditu da ALKE Alzadi Leitzako Kultur Elkartearen webgunea: www.leitzakultura.net. 1978. urtean sortu zen taldeak orain urte batzuk estreinatu zuen Interneteko ataria, baina duela gutxi berri egin du. Hainbat atalekin hornitu dute: batetik elkartearen historia, nor diren, helburuak eta jarduerak eta lanak zein diren azaltzen dute, horrez gain, unean uneko berriak ere kontsulta daitezke—hala nola, asteburuan egiten den Euskal Herria mendi erronka—, Leitzako ekitaldien egutegia ere hortxe dago—tartean, egun hauetan ospatzen ari diren Kultur Aroko ekitaldiak—, baita argazkien eta berrien artxiboa ere. *Kuttunak* saila ere badu, eta buletin jaso nahi duenak hor du erregistratzeko aukera. Hasierako helburuekin segitzen du, «herritarrek kulturaz gozatu eta jantzen», baina webgunean dioenez, «XXI. mendean garelarik, aurrerapauso gehiago eman nahi izan dira eta interneten ere aritzeko garaia dela erabaki dugu».

Nire aukera



Joanes GARCIA
Sarako gaztea

«Ene diru moltsak baimenduko balu, aunitz gehiago bidaiatuko nuke»

Musika, futbola eta irakurtzea. Horiek dira Joanes Garcia Basurko saratarraren zaletasunik haundienak. Ez, ordea, bakarrak, herrian eta inguruan egiten diren ekimenen antolaketa ere ibiltzen baita. Kanboko ikastolan lan egiten du, eta denbora librean «musika entzutea, alabarekin ibilalditxoak egitea, lagunekin elkartzea eta zinemara joatea» gustatzen zaio. Bidaiatzea ere gustuko du eta erran digunez, «ene diru moltsak baimenduko balu, aunitz gehiago egiten nuke». Bisi-tatutako tokien artean, Kaliforniara egindako bidaiak du bereziki gogoan, baina «mundu osoa» eza-gutuko omen luke. Aukeratzekotan, Guatemala, Islandia ala Vietnam. Asteburuko planik ederrena hau du: «goizean merkatura, eguerdian bazkari goxo bat lagunekin eta gauean kontzertu on bat». Mutiko dantzari gonadunez ere galdetu digu, abarkak, galtzerdiak, txapela eta eskoziar kilt-a jantzita, Zpeiz Mukaki taldeko dantzari izana baita. Bertze proiektu batzuetan dabilela aitortu digu baina «zonbaitzutan kiltak aireztatzen ditugu».

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mogleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDZUBI
- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎ 943 217817.

DONEZTEBE. Pisua salgai Parrokia kalean. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Balkoi haundiarekin. Dena mogleztatua eta igogailuarekin. ☎ 665 709848.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ALMUÑECAR. Abuztuko bigarren eta iraileko lehenengo hamabostaldietarako apartamentua errentan emateko. Hondartza ondoan, igerilekuak, bista ederrak, klimatizatua eta ongi ekipatua. ☎ 658 943702.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua errentan

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

emateko. Mogleztatua.
☎ 677 592133.

SUNBILLA

ERAIKIN BERRIA
Pisua • Garajea
Trastelekua
120.000€tik hasita

T./F.: **948 10 98 18**
607 94 67 85

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

ESKUALDEA. Emakumezko batek etxebizitza edo pisu bat errentan hartu nahiko luke Bortziriak, Baztan edo Malerreka inguruan. ☎ 647 233690.

LESACA-BIDASOA. Pisu edo etxe tiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. Interesatuak mesedez deitu arratsaldeko 16:00etatik aitzinera. ☎ 636 777478.

Baseri txiki / borda bat erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 628 090498.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

DONEZTEBE. 200 m²ko bajera errentan emateko. ☎ 608 978210.

LEITZA. Elgoien 19an, bajera errentan emateko. Denda jartzeko prestatua. 60 m². ☎ 948 510167.

LEKUNBERRI. Goiko lore-denda traspasatu edo errentan emateko, arreta emateko zailtasunengatik. ☎ 667 848832.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

SALDIAS. 1.500 m²ko lur eremu laua salgai. Asteburuetarako egokia, aisialdirako. Kotxeentzako sarbide egokia. Oso eguzkitsua. Bista pano-

rama ederrak. Antenarako bidean. Prezio itertzagarria. ☎ 616 264219.

ETXALAR. Lurzati eraiki-garria salgai, 2.000 m². Kotxeentzako sarbidearekin. Ura eta argia. Exekuzio proiektua eta Udalaren baimenarekin. Bista ezin hobek. Udaltxetik 250 metrora. 92.000 eurotan. ☎ 678 099422.

DONAMARIA. 1.200 m²ko lur eremua salgai. Asteburuetarako aproposa, fruta arbolekin. Prezio onean (ordaintzeko erraztasunekin). ☎ 646 376331.

LANA

eskariak

Industria eta nekazaritza arloetako ezagutzak dituen mutil gaztea lan bila ari da. ☎ 639 046703.

Neska gaztea eskaintzen

da **haurrak zaindu** edo **zerbitzari** lanetan aritzeko, Elizondo eta inguruko herrietan. ☎ 619 807760.

ESKUALDEA. Gizonezkoa iturgin, elektrizitate... lantxoak egiteko prest dago. Ardi ilea mozteko ere bai. ☎ 651 881863.

Neska gazte euskalduna lan egiteko prest dago. ☎ 948 637182.

ESKUALDEA. Emakumea interna bezala lanean ariko litzateke. ☎ 682 321453.

MALERREKA-BAZTAN. Larunbat gauean eta igandetan lan egiten nuke otorduak ematen edo barran. ☎ 686 998360.

BAZTAN. Arkitekturako ikasle bat naiz, eta udan Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergo mailako klase partikularrak emateko prest nago. ☎ 680 187344.

MOTORRAK

salgai

Seat Leon Sport 130 cv salgai, 2005ekoa, egoera bikainean. ☎ 699 375 558.



Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Maiatzaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 47 € (-6,00)

Zerri gizena
1,326 € kiloak. (-0,017)

Zerramak:
0,780€ Kg/bizirik. (-0,020)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,28
1.koa 4,02
2.koa 3,87

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,06
2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00
idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,00
8-10 kilokoak: 4,60/5,30

urtekoa. 67.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

Nissan Pick-up salgai. Oso egoera onean. 160.000 kilometro. Mendian ibili gabea, 2005-ekoa. ☎667 848832.

ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurrak oparitzeko, ar bat eta eme bat, Border Collie - arizakurra arrazakoak. Oso politak eta argiak. ☎652 729101.



Rottweiler arrazako **zakurra** oparitzeko. ☎670 542571.



Hiru **katakume** oparitzeko. Hagitz mantsok. ☎626 644420.

ANIMALIAK
salerosketak

ETXALAR. Setter ingeles zakurkumeak salgai. Pedigridunak. ☎620 036553.

Spaniel Breton arrazako **zakurkumeak** salgai. 2 eme eta ar bat, bi hilabete-koak. ☎677 592133.



Ahuntz enano gazteak salgai. Prezio onean. ☎618 778328.

BERA. Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎948 631022/688 609905.

DENETARIK
zerbitzuak

Diana Iniesta psikologoaren kontsulta Erratzun, etxez-etxe edo Internet bidez. Interesatuak deitu 948 453478 telefonora edo idatzi *diana iniesta@hotmail.com* helbidera.

DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



B E R A K O U D A L A

NAHITAEZKO DESJABETZE ESPEDIENTEAREN HASIERA

2013ko maiatzaren 22an argitaratu zen Osoko Bilkuraren akordioaren iragarkian akatsa zegoenez, argitara ematen da orain testu zuzena.

2013ko apirilaren 16an Osoko Bilkurak egindako bileran ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1) Desjabetze espediente honek ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda, ondotik ematen duena, hasiera batez onestea:

Titularra eta helbidea	KATASTROKO DATUAK				
	Zortasun orokorra	Aldi baterako okupatzea	Poligonoa	Lur-zatia	Izaera eta mota
M ^a José Aldecoa Argaya / Ramón Vicente Vazquez Avda. del Mar, 21 - 6 ^o Izda. 15406 FERROL	75 m ²	81 m ²	3	274	Lubanarroak eta zorua

2) Aipatu zerrenda, Iragarki Taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietako batean alde zuzen argitaratua, 15 eguneko epean jendeaurrean jartzea, espediente honek ukitzen duela uste duten guztiak bidezkotzat jo ditzaketan alegazioak aurkez ditzaten.

Oharra: Iragarki hau 2013ko maiatzaren 23ko 97. NAO n argitaratu da.

Bera, 2013.05.23 ALKATEA, M^a Sol M. Taberna Irtzoki

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

Lau ahotseko **trikitixa** erosiko nuke. Si bemoilen dagoena. ☎948 637327.

Lau ahotseko Zero Sette Antiko markako sol-do **trikitixa** erosiko nuke. ☎948 637327.

New Holland markako **enpakadora** salgai. ☎660 251884.

DENETARIK
galdu/aurkituak
BERA. Trenbidean, ha-

robiaren ondoan, giltza jeko giltza bat barne. multzoa aurkitu da, gara- ☎650 162372.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten

8
EURO

HILABETE HONETAKO
ESKAINTZA

143€

2500 FLYER A5 [14,8cm x 21cm]
Koloretan bi aldetik
135g
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Arrotxapeako **IBAI VILLANUEVA NAVARROK** urtebete beteko du ekainaren 8an. Zorionak Alkai-gako familiaren partetik. Ea noiz ospatzen dugun!



Zorionak osaba **ANGELI**, maiatzaren 8an urteak bete dituelako. Tiooooo... non geldituko gara bien urtebetetzea ospatzeko? Muxu handi bat.



Urrozko **MATTIN ZELAIETAK** maiatzaren 18an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat Urrozko eta Oizko familien partetik. Prestatu berendu goxoa eta segi beti bezain guapo!



AMETS eta **UNAI GEREÑO GARCIAK** maiatzaren 29an 2 urte beteko dituzte. Auniz urtez ataxi eta amatxien partetik. Ongi ongi pasa zuen eguna. Muxuak.



Lesakako **MARTXEL LARRALDE MONTERROSAK** urteak beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak **MARTXEL** zure hamaikagarren urtebetetzean. Muxu handi bat Lesakako familiaren partetik, bereziki Naroa, Oihan eta Kemenen partetik.



Donamariako **NAHIA** eta **EKAIN TELLETXEA ODRIOLAK** ekainaren 21ean 5 urte beteko dituzte. Zorionak gure futbolari eta muxu potolo auniz Lesakako izeba eta osabaren partetik.



Iruritako **OIHAN ARRAZTOA VICENTE**, gure morroxko tikiak, 2 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta bereziki Leizta eta Iruritako familiaren partetik!



AMAIA ELORZ RIPAK maiatzaren 21ean 2 urte bete ditu eta bere aitaxo **JUANKARREK** ekainaren 9an bereak egingo ditu. Zorionak bikote familia guztiaren partetik eta aurten bai ospatuko dugula merezi duzen bezala. Muak!!



Leitzako **UNAX ZABALETA GARTZIA** gure etxeko txirindulariak 5 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik eta bereziki zure arreba Yueren partetik. Segi beti bezain alai. Muxu goxo-goxoa zuretzat tiki!!



Erratzuko **MARIAN ETXEBERRIA BIKONDOK** maiatzaren 11n eta **NAROA BIKONDO JAURENAK** maiatzaren 29an urteak beteko dituzte-lakoz, zorionak familiaren partetik eta bereziki Enaitzen partetik. Muxuak.



Sunbilla izeba **KONSUELO IRIARTE IBARRAK** ekainaren 2an urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Garaine eta Iraide iloben partetik. Igandea tokatzen denez, ea bazkari goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxuak.



Gazteluko **MIKEL ITURBIDE CUBERO** gure morroxko tikiak urte bat beteko du ekainaren 9an. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat zure aitaxo eta amatxoren partetik.



Gazteluko **MIKEL ITURBIDE CUBEROK** urte bat beteko du ekainaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!!



Lesakako **ELAIA MINDEGIAK** eta Beintza-Labaiengo **JOSE ANTONIOK** ekainaren 8 eta 6an urteak beteko dituzte. Zorionak Labaiengo familiaren partetik, muxu auniz bioi eta batez ere gure panpoxari!!



Lesakako **AINITZE** eta **AMAIUR MARTINEZ OLAZABAL** Beheko Errotako gure bitxilore kuttunek ekainaren 16an 5 urte beteko dituzte. Zuen alaitasunak zoriontsu egiten gaituelako, auniz urtez! Attatto eta amatto.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa

www.ttipi.net en

argazki soila
4
EURO

aldizkarian interneten

argazki bikoitza
8
EURO

ttipi-ttapa

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 59,50€
- Leizta 17€

Informazioa eta salmenta:
607 946 785
948 109 818

- PISUAK
- GANBARAK
- GARAJEAK
- LOKALAK

%100 finantzatua

SEKULAKO AUKERA

120.000€^{tik} hasita

Garajea, trastelekua eta BEZa barne

OKASIOKO IBILGAILUEN FERIA

NAFAR MENDIn Hiper Simply ARRAIOZ

ekainak
20, 21, 22
eta 23

arin car

Sampi Aragón

Zoansa

Sampi Aragón, S.A. **ZOANSA**

Auto baten bila
bazabiltza, hau da
zure **AUKERA!!**

AUKERA HAUNDIA: Autoak | 4x4 ibilgailuak | Monobolumenak



Feriako Eskaintza Berezia:
Urte baterako
ASEGURUA DOAN!!



freskatu
goxatu
INFORMATU



LIDERRAK GURE ESQUALDEAN
eta baita azterketa egiterakoan CIESeK
Nafarroa Garaiko mendialdean
hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere


Ttipi-Ttaparekin
zure iragarkiak
eragin haundiagoa du



Ikasketan mailaren arabera
IKASKETARIK GABE -
LEHEN IKASKETAK %10,40
LANBIDE HEZIKETA %32,80
BATXILERGOA %21,90
UNIBERTSITATEA %31,70

Adinaren arabera
14-24 URTE %12,20
25-34 URTE %14,80
35-44 URTE %26,80
45-54 URTE %22,20
55-64 URTE %07,20
+ 64 URTE %16,70

Sexuaren arabera
GIZONAK %48,40
EMAKUMEAK %51,60



Datu iturria: CIES 2013ko 1. neurketa

ttipi txartela

ttipi-ttapa

Pili IRIARTEA IGARTZA
72675333-Q
04/2014
Zk. 123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

Informazio gehiago: telefonoan
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUAK



autoeskola

BERA | %10 matrikulan

FANTXIKE

ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

Amaia
irudi eta estilismo zentroa

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10
oparietan 50€tik gora. Promozioetan ez

Agara
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

oreka
nutrizioa eta dietetika
belardenda

LESAKA
%5 kontsulta eta produktuetan

jaione tindategia

DONEZTEBE
%10, 12€tik gorako gastuan

zozketak

590 ALEKO IRABAZLEAK

- 1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto
Nati Martikorena | **LESAKA**
- 2- MARTIKO LOTEA
Joxemi Arbelaiz | **LESAKA**
- 3- PIRATAK JOLASA | Urtxintxa eskola
Lupe Mendigutxia | **BERA**
- 4- 3 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
Txomin ilea mozten | Xanti Dendarrieta | **IRURITA**
Katalin etxean laguntzen | Anabel Arburua | **ETXALAR**
Txomin eta katalin | M^a Jose Etxeberría | **NARBARTE**
- 5- 2 LIBURU | Ttartalo argilatetxea
Kamile eta gaueko amesgaiztoa | Maite Iturbide | **ERRATZU**
Kamile pottoka gaian | Jaione Sein | **IGANTZI**
- 6- 2 SARRERA | Aquarium
Ana Esther Menta | **URDAZUBI**

KAMISETA BAT
Oninart denda

www.oninart.com



2 LAGUNENTZAKO AFARIA
OITZKO OSTATUA

www.posadaoitz.com



TORTOLOXAK DVDA
Urtxintxa eskola

www.urtxintxa.org

urtxintxa
25 URTE eskola



2 LIBURU
Elkar argitaletxea

www.elkar.com


ekar



2 LIBURU
Erein argitaletxea

www.erein.com

erein
ARGITALETxea



2 SARRERA
Aquarium

www.aquariumss.com

AQUARIUM
BONOSTIA / SAN SEBASTIAN

